

JUAN ZARAGUETA HERRI ESKOLA

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA

AURKIBIDEA

SARRERA	5
ESKOLA ANTOLAMENDUA. 1.ATALA	8
Xedapen orokorrak	9
1. Kapitulua: taldeko aginte organoak	11
1.1. Eskola kontseilua	
1.2. Batzordeak	
1.2.1. Batzorde iraunkorra	
1.2.2. Ekonomi batzordea	
1.2.3. Batzorde pedagogikoa	
1.2.4. Elkarbizitza batzordea	
1.3. Urteko batzordeak	
1.4. Irakasle klaustroa	
1.5. Zuzendaritza taldea	
2. Kapitulua: lagun bakarreko organoak	18
2.1. Zuzendaria	
2.2. Ikasketa burua eta ikasketa buru albokoa	
2.3. Idazkaria	
3. Kapitulua: partaidetza eta lankidetza organoak	21
3.1. Partaidetza	
3.1.1. Guraso batzarra	
3.1.2. Ikasleen guraso-elkarteak	
3.1.3. Legalki eratutako elkarteen bidez parte hartzea	
3.2. Lankidetza organoak	
3.2.1. Guraso elkarteak	
3.2.2. Erakundeak eta ikastetxearen laguntzaile gisa diharduten elkarteak: udala	
4. Kapitulua: irakaskuntza koordinatzeko organoak	25
4.1. Irakasleak	
4.2. Tutoreak	
4.3. Irakasle taldeak	
4.3.1. Etapako irakasle taldea	
4.3.2. Zikloko irakasle taldeak (LH)	
4.3.3. DBHko departamendu didaktikoak	
4.3.4. Ebaluazio taldeak	
4.3.5. Mailako irakasle taldeak	
4.4. Hezkuntza zerbitzuak	
4.4.1. Laguntza zerbitzuak	
4.4.1.1. Aholkularia	
4.4.1.2. Orientatzailea	
4.4.1.3. PT irakasleak	
4.4.1.4. HEI (hizkuntza errefortzuko irakasleak HIPI)	
4.4.1.5. ALE	
4.4.1.6. HLE	
5. Kapitulua: eskolako zerbitzuak	36
5.1. Jangela	
5.2. Zaintza zerbitzua	

5.3. Eskola garraioa

BIZIKIDETZARAKO ARAUAK. 2. ATALA	37
1. Kapituluak: printzipio orokorrak	38
1.1. Bizikidetzaren oinarriak	
1.2. Bizikidetza plana	
2. Kapituluak: ikasleen eskubideak	39
2.1. Sarrera	
2.2. Irakasleek ikasleen eskubideak babesten laguntzea	
2.3. Segurtasunarekin lotura duten eskubideak zaintzea	
2.4. Ondra, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea	
2.5. Irakasleek greba egiteko eskubidea (DBH3-4)	
2.6. DBH4ko ikas bidaia protokoloa	
3. Kapituluak: ikasleen betebeharrak	42
3.1. Sarrera	
3.2. Betebeharrak	
4. Kapituluak: arau hausteak eta neurri zuzentzaileak	46
4.1. Printzipio orokorrak	
4.2. Arau hausteak eta neurri zuzentzaileak	
4.2.1. Jokabide desagokiak eta neurri zuzentzaileak	
4.2.2. Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta neurri zuzentzaileak	
4.2.3. Bizikidetzaren aurkako jokabide larriak eta neurri zuzentzaileak	
5. Kapituluak: neurri zuzentzaileak aplikatzeko irizpideak	52
5.1. Sarrera	
5.2. Neurri zuzentzaileak proportzionaltasunez aplikatzen direla bermatzeko irizpideak	
5.2.1. Kontuan izan behar diren irizpideak	
5.2.2. Erantzukizuna aldatzen duten irizpideak	
6. Kapituluak: jokabideak zuzentzeko bide alternatiboak	53
6.1. Sarrera	
6.2. Neurri hezitzaileak	
6.3. Prozedura adostasunez etetea	
6.4. Egoera konpondu delako prozedura etetea	
6.5. Familiak hartutako neurriak	
6.6. Bizikidetza konprometzu hezigarriak	
7. Kapituluak: neurri hezitzaileak aplikatzeko prozedurak	56
7.1. Oinarri orokorrak	
7.1.1. Eskumenak	
7.1.2. Epeak eta eremuak	
8. Kapituluak: bizikidetzaren aurkako jokabide guztiak zuzentzeko ohiko eta ez ohiko prozedurak	58
8.1. Ohiko prozedura	
8.1.1. Jokabidearen ezagutza	
8.1.2. Hasiera ekitaldiaren jakinarazpena eta zitazioa ikasleari eta bere guraso edo lege ordezkari	
8.1.3. Behin behineko neurriak hartzea	

- 8.1.4. Audientzi tramitea
- 8.1.5. Neurri zuzentzailea ezartzeko zuzendaritzaren erabakia
- 8.1.6. OOGri eta klaustroari berri ematea
- 8.1.7. OOGn erreklamazioa
- 8.1.8. Zuzendaritzak OOGri erabakia igortzea
- 8.1.9. OOGren erabakia
- 8.1.10. Lurralde ordezkariari erreklamazioa

8.2. Ohiz kanpoko prozedura

- 8.2.1. Jokabidearen ezagutza eta hasiera ekitaldia
- 8.2.2. Hasiera ekitaldiaren berri ematea eta behin behineko neurriak hartu ahal izatea
- 8.2.3. Instrukturearen abstentzio eta ezarpena
- 8.2.4. Prozedura etetea adiskidetze edo konponketagatik
- 8.2.5. Espediente fiskaltzari jakinaraztea legez kontrako ekintzaren zantzuak izateagatik
- 8.2.6. Ikasleari edota lege ordezkariari zitazioa egitea
- 8.2.7. Entzunaldia
- 8.2.8. Ebazpen proposamena egitea eta ikasleari, legeko ordezkariari eta zuzendariari jakinaraztea
- 8.2.9. Espedientea ebaztea eta ikasleari eta legeko ordezkariari jakinaraztea
- 8.2.10. OOGri erreklamazioa
- 8.2.11. OOGren erabakia (neurri zuzentzailearen aldaketa edo berrestea)
- 8.2.12. Lurralde ordezkariari erreklamazioa
- 8.2.13. Prozedura

8.3. Ohiko eta ez ohiko prozedurak: laburpena

ERRENDIMENDU AKADEMIKOAREN EBALUAZIO

OBJETIBOA. 3. ATALA 66

1. Printzipio orokorrak
2. Publikotasuna
3. Ikasleentzako eta gurasoentzako informazioa
4. Zuzendutako lanak, frogak eta ariketak berrikustea
5. Ariketa zehatzei jarritako kalifikazioen aurrean erreklamazioak
6. Ebaluazio partzialen aurrean erreklamazioak
7. Kalifikazioak justifikatzen dituzten agiriak gorde
8. Azken kalifikazioei buruzko erreklamazioak
9. Mailako taldeak hartutako erabakiaren ondorioak

SARRERA

Antolakuntza- eta jarduera-araudia (AJA) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako berezko dokumentua da. Agiri hori derrigorrezkoa da Euskal Eskola Publikoaren Legeko 29. artikulua hala ezarri duelako.

Artikulu horretan, halaber, AJAren eduki minimoak zein izan behar diren zehaztu da. Hona hemen:

- Ikastetxearen antolamendurako eta funtzionamendurako egituraren definizioa.
- Zenbait arau, hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko begirunea eta bizikidetzat bermatzeko, eta aretoak nahiz instalazioak egoki erabiliko direla ziurtatzeko. Arau horiek demokratikoak izan behar dute; hau da, eskola-komunitateko kide guztiek hartu behar dute eskubideak errespetatzeko eta betebeharrak betetzeko konpromisoa.
- Ebaluazioetan erreklamazioak egiteko araubidea.

Agiri hau gidatzat hartu behar da. Agiri honen bidez, erraztu egin nahi da Eskubideen eta Betebeharren abenduaren 2ko 2011/2008 Dekretura AJA egokitze prozesua

Agiriaren ezaugarriak hauek dira:

- Dekretuaren derrigorrezko edukia besterik ez du jaso. Hiru tituluetan, 1. puntuan zehaztu diren hiru alderdiak jaso dira, Legean aipaturiko ordena berean, hain zuzen. Argi dago mugaketa horren arrazoia zein den: AJA arau tinko samarra da ikastetxeetan. AJAn aldaketak egiteko, eskuarki, batzordeak eratu behar dira, eta OOGak onetsi beharko ditu egin diren zuzenketak. Egoera berrietara egokitze edo araudiko aldaketak jasotzeko, AJAn zenbait aldaketa egin beharko dira ziur asko. Derrigorrezkoak ez diren elementuak sartzen baditugu, beraz, beharrezkoak diren aldaketak ezin izango ditugu arin egin. Bestetik, Eskubideen eta Betebeharren Dekretuan ezarri da ikasleek eskolako arauak betetzeko betebeharra dutela. Eta eskolako arauen artean ikastetxeko aginte-organismoek beren eskumenen esparruan onetsi dituzten guztiak daudenez, AJAk ezinbesteko markoa soilik ezartzea litzateke egokiena.
- I.atalean, aginte-organismoen, koordinazio didaktikorako organismoen eta partaidetza-organismoen eskumenak eta funtzioak zein diren zehaztu da. Halaber, organo horien eskumenak eta funtzioak legezko zer xedapenetan ezarri diren zehaztu da. Xedapen horiek, nolana ere, ez dira testuan hitzez hitz jaso, arrazoia argia da: funtzioetako asko Hezkuntza Sailaren araudian zehazten direnez, agirietan hitzez hitz jarritz gero, aldaketak egin beharko lirateke ia ikasturtero. Aitzitik, legezko testua eranskinetako batean ageri

bada, eranskina besterik ez da aldatu behar. Aldaketa hori, gainera, zuzendaritza-taldeak egin dezake, inolako arazorik gabe.

- Ildo horretatik, gauza bera gertatzen da II. atalean, bizikidetza arautzeko xedapenez ari denean, 201/2008 Dekretura jotzeko esaten zaigunean. Ikastetxeak beti du dekretuan ezarritako irizpideak betetzen dituzten jokabideak zuzengarriak direla erabakitzeko ahalmena, eta hori kontuan hartuta, nahikoa litzateke eranskinetan bildutako legeetara jotzea.
- Ez da aurreikusi arautu gabeko irakaskuntza ematen duten ikastetxeen egoera. Euskal Eskola Publikoaren Legeko 55.2 artikulua arautu gabeko lanbide-heziketa ematen duten ikastetxeetan, antolamendu- eta jarduera-araudian jaso beharko dira, besteak beste, bizikidetzarako arauak, eta aretoak zein instalazioak egoki erabiltzeko zehaztapenak, bizikidetza eta aretoen erabilera egokia bermatu dadin. Oro har, nahikoa izango da arautu gabeko ikasketak egiten ari diren ikasleei 201/2008 Dekretuan adinez nagusi diren ikasleentzat adierazitako arauak aplikatzea.
- Halaber, ez dago garraioari eta jantokiei buruzko arau zehatzik. 201/2008 Dekretuak eskola-barneko eta -kanpoko jarduerak arautzen dituenek –bai jantokian, bai garraioa egiten den bitartean, bai eskolatik kanpo ere–, baldin eta ikastetxearekin lotura badute, bizikidetza-arau orokorrak aplikatzekoak dira ikasleentzat.
- Era berean, azpimarratu beharra dago antolamendu- eta jarduera-araudiak ez dituela arautzen irakasleen, ikastetxeko gainerako langileen eta gurasoen eskubideak eta betebeharrak. Irakasleen eta irakasle ez diren ikastetxeko langileen kasuan, argi dago zergatik ez diren arautu: beren eskubideak eta betebeharrak funtzionarioen estatutuko funtsezko alderdi bat dira, eta Legean arauturik daude. Nolanahi ere, baliagarria izan daiteke aipatu berri duguna eranskin gehigarrietan jasotzea; izan ere, beren betebeharrak ez betetzea falta arina da, gutxienez, eta ikasleek irakasle eta irakasle ez diren langileen eskubideak urratuz gero, zuzendu egin behar zaie.

Atalei dagokienez, I. Atalean aginte-organismoak, koordinazio didaktikorako organismoak eta partaidetza-organismoak zehazten dira. Oin-oharretan azaltzen dira, batetik, Euskal Eskola Publikoaren Legearen arabera zer organismo diren derrigorrezkoak; bestetik, aukerako zer organok duten Hezkuntza Administrazioaren onarpena, zenbait arautan adierazia, baldin eta baldintza ekonomikoak, administratiboak edo ordutegizkoak betetzen badituzte; eta azkenik, beste edozein organismo ezartzeko aukera ere adierazten da. Azken horiek erabateko eraginkortasuna izango dute ikastetxe barruan, baina ez dute aurrekoen onarpena.

II. Atalari dagokionez, jada aipatu da uko egiten zaiola AJAren baitan bizikidetza-arau zehatz-zehatzak adierazteari. Eskubideak errespetatzea eta betebeharrak betetzea zehazten dira bizikidetzaren oinarritzat, Euskal Eskola Publikoaren Legearen nahiz Eskubideen eta Betebeharren Dekretuaren espirituari eta filosofiari jarraiki. Titulu horretan, halaber, ikasleen oinarritzko eskubideen bermeak jaso dira, 201/2008 Dekretuan ezarritakoa betez, baina modu orokorrean; izan ere, ikastetxeen aniztasuna dela-eta, arau zehatzagoak ezarri gero, ezingo lirateke

egokitu egoera berezi askotara. Ikastetxeko aginte-organoek eskumena dute goian aipaturiko zehaztasunak adierazteko, OOGk edo zuzendaritza taldeak hartutako erabakien bidez.

Hain zuzen, eskolarako hutsegite kolektiboari dagokionez, eredu nahiko irekia aukeratu da, aurreko Dekretuarekin bat etortzeko. Hala ere, legeak agindu bezala, auzi horretatik kanpo utzi dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailatik beherako ikasleak. Arau hori ezartzea, nolanahi ere, ikastetxearen esku dago. Nolanahi ere, hauek izango lirateke muturreko irizpideak: alde batetik, proposaturiko eredu ireki hori hartzea, eta bestetik, eskolarako hutsegite kolektiboa kasu guztietan faltatzat jotzea, baldin eta, salbuespen gisa, erakundeek edo alderdi politiko guztiek horretarako deialdia egin ez badute (esaterako, etxeko indarkeria edo terrorismoa gaitzesteko kontzentrazioetarako deialdiak). Era berean, aukera dago zuzendaritza jakinarazteko izapideetarako epeetan eta moduetan zorroztasun edo malgutasun handiagoz jokatzeko.

Azkenik, aldaketak egin daitezke ere erreklamazioak egiteko proposaturiko ereduan –baliozkoa da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik aurrera –. Gutxienez, behintzat, 201/2008 Dekretuan helburuen publizitateari eta ebaluazio-irizpideei buruz zehaztutakoa bermatu beharko litzateke erreklamatzeko ezinbesteko baldintzat, bai eta ikasturte osoan zuzendu diren azterketak ikusteari buruzkoa ere. Halaber, idatzizko prozedura ezarri beharko litzateke, gutxienez azken kalifikazioak eman ondoren 24 orduz erabiltzekoa, bai eta, adostasunik lortu ezean, irakasgai horretako arloak azterketa berrikustea ere, Lurraldeko Ordezkaritzan erreklamazioa aurkeztu baino lehen.

ESKOLAKO ANTOLAMENDUA

1. ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

1. ATARIKOA [ERANSKINAK\EEPL.PDF](#)

CPI JUAN ZARAGUETA IPI ESKOLAREN IZENDAPENA, IRAKASKUNTZAK ETA EZAUGARRIAK

Juan Zaragueta eskola ikastetxe publikoa da. Bertan Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza ematen dira. Goian aipaturiko ikastetxea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ierketa Sailaren menpe dago. Ikastetxe horrek, hartara, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ierketa Sailak ezarritako planteamenduari jarraiki ematen ditu, ikasturtez ikasturte, bere ikasketak.

Euskal Eskola Publikoaren Legearen 3.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, Juan Zaragueta eskolak ezaugarri hauek ditu: plurala da, elebiduna da, demokratikoa da, euskal gizartearen beharrak ase ditu, inguru sozial eta kulturalen sustraiturik dago, parte hartzailea da, desberdintasunak orekatzen ditu eta aniztasuna zaintzen du.

Juan Zaragueta eskolak bere egin ditu Euskal Eskola Publikoaren Legeko 3.2. artikuluan ezarri diren xedeak. Ikastetxe horretako gobernu-organo, partaidetza-organo eta koordinazio didaktikorako organo guztiek, irakasleek eta irakasleak ez diren ikastetxeko langile guztiek goian aipaturiko helburuak betetzera bideratuko dute beren jarduna.

Juan Zaragueta eskolak ikastetxeko bizikidetzaren oinarri gisa, bere eskubideak bete eta gainerakoen eskubideak errespetatuko dituela agintzen du.

2. AGINTE-ORGANOAK ([IPI AGINDURA 13.ART](#)) (lotura eskolan dago)

Juan Zaragueta eskolak Euskal Eskola Publikoaren Legean aurreikusi diren aginte-organoak izango ditu. Organo horiek Euskal Eskola Publikoaren Legean ezarritako eskumenak eta eskuduntzak izango ditu.

3. HEZKUNTZA-KOMUNITATEAREN PARTAIDETZA

Eskola Kontseiluaren bidez ikasleen gurasoek, irakasleek, DBHko ikasleek, zerbitzuetako langileek eta Udalak Juan Zaragueta eskolaren kudeaketan parte har dezakete.

Juan Zaragueta eskola ikastetxeko guraso-elkartearen egoitza izango da. Ikastetxeak, hartara, lokalak utziko dizkio elkarte horri bere jarduera gauzatu dezan. Horrez gain, elkarteak ikastetxearen bizitzan parte hartzea sustatuko du ikastetxeak. Horretarako, hezkuntza-jarduerak, jarduera kulturalak eta kirol-jarduerak bultzatuko ditu.

4. KOORDINAZIO DIDAKTIKORAKO ORGANOAK

Tutoretzak eta taldeko, etapako nahiz zikloko irakasle taldeak Juan Zaragueta eskolako koordinazio didaktikorako organoak izango dira. Aipatu berri ditugun bi organo horiek, klaustroaren eta koordinazio Pedagogikorako Batzordearen zuzendaritzapean egongo dira.

5. AGINTE-ORGANOEN, PARTAIDETZA-ORGANOEN ETA KOORDINAZIO DIDAKTIKORAKO ORGANOEN JARDUNAREN OINARRIAK.

Ikastetxeko aginte-organoek, partaidetza-organoek eta koordinazio didaktikorako organoek zainduko dute ikastetxeko jarduerak Euskal Eskola Publikoaren Legean jaso diren printzipio eta balioei jarraiki gauzatzen direla. Aipatu berri ditugun organoek, halaber, EEPLn nahiz indarrean dauden xedapenetan ezarri diren hezkuntzako xedeak egoki betetzen direla zainduko dute, baita hezkuntzaren kalitatea ere.

Horrez gain, aginte-organoek, partaidetza-organoek eta koordinazio didaktikorako organoek bermatuko dute, bakoitza bere eskumen-esparruan, gurasoen eta administrazioako nahiz zerbitzuetako langileen eskubideak betetzen direla. Era berean, organo horiek guztiek aipatu berri ditugun eragileek beren betebeharrak betetzen dituzten ikuskatuko dute.

Mintzagai ditugun organoek, bestetik, bere gain hartuko dute hezkuntza-komunitateko kide guztiek ikastetxeko bizitzan, ikastetxearen kudeaketan eta ikastetxearen ebaluaketan eraginkortasunez parte hartuko dutela bermatzeko ardura.

1. KAPITULUA: TALDEKO AGINTE-ORGANOAK

1.1 ESKOLA KONTSEILUA (OOG)

Juan Zaragueta eskolako Organizazio Organo Gorenaren bidez, hezkuntza-komunitateko kide guztiek parte hartuko dute ikastetxearen kudeaketan. Organo horrek Eskola Kontseilua izena hartuko du.

Partaideak:

- Zuzendaria
- Ikasketa Burua
- Idazkaria, hizpidez eta botorik gabe.
- 10 irakasle
- Ikasleen 12 guraso
- 3 ikasle
- Administrazio eta zerbitzu langileen ordezkari bat
- Udalbatzarreko ordezkari bat.

Funtzioak:

Eskola Kontseiluaren funtzioak Euskal Eskola Publikoaren legeak 31.artikuluari jasotzen dituenak dira, eta, IPI ikastetxeen egitura eta antolaketa arautzen duen 2012ko urtarrilaren 16ko aginduan jasotzen dituenak ere. [Ipi agindua/ 14. atala](#)

- Berezi interesgarriak diren gaietan, eskola komunitateko talde desberdinen partaidetza organoen iritzia eskatu.
- Egonkorak edo une-uneakoak diren batzordeak eratu.
- Laguntzako zerbitzuei, ikuskaritzari eta administrazioari egoki iruditzen zaizkion txostenak eta aholkuak eskatu.
- Hezkuntzako teknikariei azterlanak egiteko eskatu.

Funtzionamendua:

- Eskola Kontseilua ikasturtean zehar gutxienez 2 aldiz bilduko da. Bata, ikasturtearen hasieran, bertan, Urteko Plana eztabaidatu eta onartuko da. Bestea, ikasturte bukaeran Urteko Memoria aztertu eta onartzeko, besteak beste. Horietaz gain, Batzorde Iraunkorrak erabakitzen duen guztietan edo Eskola Kontseiluko kideen heren batek eskatzen duenean ere bilduko da. Idazkariak iritzitako akordioen akta jasoko du. Eskola Kontseiluko kide guztiek derrigor joan beharko dute Eskola Kontseiluko bileretara.

- Zuzendariak egingo du Eskola Kontseilua biltzeko deialdia, bertan data, ordua eta gai zerrenda adieraziko ditu. Batzorde Iraunkorrari dagokio gai zerrenda zehaztea, bai hala nahi duelako eta baita irakats taldeek edo irakasleek eskatu diotelako ere. Zuzendaritza taldeari dagokio klaustroak gaiak eztabaidatu eta erabaki ahal izateko beharrezkoa den informazioa luzatzea. Gai zerrendatik kanpo dauden gaiak eztabaidatzeko aukera izango da, horretarako astia egonez gero, baina, ezin izango da aparteko gai horiei buruzko erabakirik hartu, partaide guztien (% 100) kontzentzuarekin ez bada, behintzat.
- Eskola Kontseiluko kideek eta bertan osatzen diren batzordeetako kideek ez dute nahitaezko agindurik izango bere ordezkaritza lanean. Alor bakoitzeko ordezkariak Eskola Kontseiluan burututakoaren berri eman behar diote dagokion taldeari; halaber, egin nahi dituzten proposamenak jakinarazi behar dizkiote, baina, ez dute talde horretako kideen iritziekiko loturarik izango.
- Pertsona jakinei kalteren bat sor diezaiokeen arazoak isilpean gorde beharko dituzte.
- Eskola Kontseiluak edo hori osatzen duten edozein batzordek aztertu beharreko dokumentuak Eskola Kontseiluko kideen esku egon behar dute saioa ospatu aurretik, bilera egin baino aste bete lehenago. Urteko Planaren eta Urteko Memoriaren proposamenak, onartu baino, gutxienez, hiru egun aurretik jasoko dituzte eskola Kontseiluko kideek.
- Ez ohiko bileretarako deiak egin daitezke, beti ere, berrogeita zortzi orduz aitzin dei egiten badira. Hala gerta daiteke, premiaz landu behar den auzirik badago.
- Eskola Kontseiluak gehiengo soilez hartuko ditu erabakiak, kasu hauetan izan ezik:
 - Hezkuntza Proiektua, Urteko Plana, eta AJA nahiz AJAren aldaketak onetsi behar direnean. Horiek guztiak gehiengo osoz onartuko dira.
 - Zuzendaria berriz izendatzeko proposamena onetsi behar denean. Proposamen hori bi hereneko gehiengoz onetsiko da.
- Eskola Kontseilua osatzen duten taldeetako ordezkariak ordezkatuaren esanetara egongo dira: horiek eskatzen dieten guztietan, Eskola Kontseiluan eztabaidatuko diren gaiak eta hartutako erabakien berri emateko eta baita bertan egin nahi dituzten proposamenak biltzeko ere. Taldeetako ordezkariak gai garrantzitsuei buruzko informazioa eman beharko diete Klaustroari eta Gurasoen Batzarrari. Horretaz gain, aipatutako biek in bildu beharko dira ezinbestez Urteko Plana onartu aurretik, proposatzen diren helburuak eta proiektuak adierazteko eta ordezkatuaren aburuen berri jasotzeko. Ordezkatuaren iritzia ez dira inolaz ere lotesleak Eskola Kontseiluko ordezkariarentzat.
- Eskola Kontseilua bi urtetik behin berrituko da, baina, epe horren barruan hutsen bat gertatuko balitz, azken hauteskundeetako zerrendan boto gehien jasotako ordenaren arabera beteko litzateke.
- Zuzendaria kanpoan bada ikastetxeko zuzendaria Ikasketa Burua izango da.
- Idazkaririk egon ezean ikastetxeko Eskola Kontseiluko irakasle berrienak hartuko du idazkariaren lekua. Pertsona horrek, irakasle den aldetik, botoa emateko eskubidea izaten jarraituko du.

1.2. BATZORDEAK

Agiri honetan jasoko ditugu arautuak dauden batzordeak: Iraunkorra, ekonomikoa eta elkarbizitza; eta gainontzekoak, urteko batzordeak eta ardurak, eranskinean txertatuko dira urteko batzordeak izenarekin.

Ondorengo batzordeak antolatzen dira ikasturte hasieran:

1.2.1 Batzorde Iraunkorra ([AJA eredua 6.or](#))

Partaideak:

- Zuzendaria
- Ikasketa Burua
- Guraso bat edo bi (1)

Funtzionamendua:

- Zuzendaria izango da Batzorde Iraunkorraren buru.
- Organo honek gehiengoz hartuko ditu erabakiak, boto haztatuaren sistema bidez.

Funtzioak:

- Ikastetxeko Urteko Plana gainbegiratzea, gero Eskola Kontseiluak onar dezan.
- Urteko Memoriaren zirriborroa gainbegiratzea, Eskola Kontseiluak eztabaidatu eta onartu dezan.
- Eskola Kontseiluko bilkuren gai zerrenda prestatzea eta gaiak eztabaidatzeko dokumentuak eskura izatea.
- Eskola-kontseiluaren berezko funtzioak bere gain hartzea, hots, ikastetxearen jarduera orokorra gainbegiratzea, administrazio eta hezkuntza alorrari dagokionez, eta Urteko Planaren jarraipena egitea, bereziki prestakuntza jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programarena.
- Gairen bat garrantzitsua iruditzen bazaio, bere eskumenekoa izan arren, erabakiak hartu aurretik eskola komunitatearen iritzia berri jakin nahi badu, Zuzendaritza Taldearen kontsulta organo gisa aritzea.
- Eskola Kontseilua eta Klaustroa Urteko Planaren burutzapenaz eta sor daitezkeen aldaketaz aldiro informatzea.
- Eskola Kontseiluak agindutako funtzioak eta eginkizunak betetzea.

1.2.2 Ekonomia Batzordea.

Partaideak:

- Idazkaria
- Zuzendaria
- Guraso bat (Diruzaina)

Funtzionamendua:

- Idazkaria izango da Ekonomia Batzordeko buru.

Funtzioak:

- Aurrekontuen eta gastuen likidazioaren zirriborroa egitea.
- Ikastetxearen ekonomia kudeaketaren jarraipena egitea
- Instalazioen nahiz ekipamenduekin zerikusia duten gaiak bideratzea.

2023-06-28ko OOG-an honakoa onartu da eskolako eta Guraso Elkarteko kuotei buruz:

- Eskolako kuota desberdinen itzulketa bakoitzeko, banketxeak komisio bat kobratzen du. Egoera horren aurrean honela jokatu da:
 - Itzulketa, eskolako akats baten ondorioz bada (kontu korrontea ez eguneratua izatea, datuak sartzerakoan gaizki sartzeak), eskolak asunituko du komisioa.
 - Itzulketa, familiaren akats baten ondorioz bada, (dirurik ez izatea, kontua itxia izatea, kontu korrante berriaren berri eskolan ez ematea...)familiak asunituko du komisioa.

Eskola Kontseiluak zenbait funtzio eta eginkizun zehatz burutzeko batzordeak sortzeko eskumena izango du. [Ikus dagokion eranskina](#)

1.2.3. Batzorde pedagogikoa

Juan Zaragueta eskolan Koordinazio Pedagogikorako Batzorde bat egongo da. Etapa eta ziklotako irakasle taldeak eta irakasle klaustroaren arteko koordinaziorako organoa da Batzorde pedagogikoa.

Partaideak:

- Ikasketaburua eta ikasketaburu albokoa
- Zuzendaria
- Aholkularia eta orientatzailea
- Etapatako koordinatzaileak (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza)

Koordinazio organo honetako buru ikastetxeko Ikasketa burua izango da.

Funtzioak:

- Ikastetxearen Curriculum Proiektuaren eta irakats jardueren programaren lanketa, martxan jartzea eta ebaluazioa koordinatzea.
- Etaparako irizpide komunak finkatzea eta etapa desberdinei dagozkien jarduerak koordinatzea.
- Tutoretza planaren programazio didaktikoak lantzeko eta aztertzeko irizpide orokorrak finkatzea.
- Klaustroari Curriculum Proiektuak proposatzea, honek onar ditzan.
- Etapako Curriculum Proiektuak betetzen direla zaintzea eta ebaluatzea.

Antolakuntza eta Jarduera araudia

- Klaustroari ebaluazio-bilkuren plangintza orokorra proposatzea.
- Ikastetxeko jarduera nahiz proiektu guztiak ebalua daitezela sustatzea, Hezkuntza Administrazioaren edo aginte-organoen ekimenez gauzatzen diren ebaluazioetan laguntzea, eta ebaluazio horien ondorioz beharrezko gerta litezken hobekuntza planak sustatzea.
- Klaustroari planak proposatzea ondoko hauek ebaluatu ditzan: etapa bakoitzeko curriculum-proiektua, hezkuntza-proiektuaren irakaskuntza, urteko programazio orokorra, ikastetxean eskola errendimenduak izan duen eboluzioa eta irakaskuntza-prozesua.
- Prestakuntza Jardueren eta Jarduera Osagarrien inguruan irakasleek dituzten proposamenak aurkeztea.
- Aginte organoek egozten dizkietenak.
- Irakasle klaustroaren eta etapako irakasleen bilerak operatiboak izan daitezen proposamenak aurrez lantzea.

Batzorde Pedagogikoa astean behin elkartzen da; bertako kide den edonork proposatu ditzake lantzeko gaiak.

1.2.4. Elkarbizitza batzordea (Behatokia- BAT taldea) (*)

Partaideak:

- Ikasketa Burua (*)
- Kontsultorea edo orientatzailea barne (*)
- Irakasle 1 (*)
- Bi guraso (1)
- Irakaslea ez den langilea

Funtzionamendua:

- Ikasketa Burua izango da Elkarbizitza batzordearen buru.
- Erabakiak hartzeko boto haztatuaren sistema erabiliko du.

Funtzioak:

- Elkarbizitza hobetzeko proposamenak egitea.
- Gerta daitezkeen arazoei aurrea hartzea.
- Huts egite larriak aztertzea: neurri zuzentzaileak hartzeko eskumena .
- Diziplina eta elkarbizitza arazoak konpontzea, Araudi honetan ezarritakoaren arabera, irakasleei, ikasleei eta familiei dagokionez.
- Bizikasi proiektuaren funtzionamendua gainbegiratzea.
- BAT taldea aktiboki funtzionatzea.

1.3.URTEKO BATZORDEAK ETA ARDURAK (ikus urteko plana)

1.4. IRAKASLE KLAUSTROA

Irakasleen klaustroaren ezaugarriak eta osaera

Juan Zaragueta Herri Eskolako Irakasle Klaustroa aginte-organoetako bat izateaz gain irakasleek ikastetxean duten berezko partaidetza-organoa da. Are gehiago, koordinazio didaktikorako ikastetxean dagoen organo gorena da. Klaustroak, halaber, ikastetxeko hezkuntza-alderdi guztiak planeatzeko, koordinatzeko erabakiak hartzeko eta informazioa emateko ardura du. Eskolan lan egiten duten irakasle guztiek osatuko dute eta ikastetxeko zuzendaria izango da buru.

Klaustroak Euskal Eskola Publikoari buruzko legeak 35.2 eta 53.3 ataletan esleitzen dizkion funtzioak beteko ditu.

Funtzionamendua:

- Zuzendariak klaustroko deialdia egingo du, gai zerrenda adieraziz. Zuzendaritza-taldeari eta Batzorde Pedagogikoari dagokio gai zerrenda zehaztea, bere ekimenez, nahiz irakats taldeek eskatuta, eta klaustroko eztabaidarako eta erabakiak hartzeko beharrezko informazioak eskaini beharko ditu. Gai zerrendatik kanpo dauden gaiak ukitu ahal izango dira astirik balego, eta egoki ikusten bada baita erabakiak hartu ere.
- Klaustroko kide guztiek derrigor joan beharko dute klaustroaren bileretara.
- Ikasturte hasieran ikasturtean zehar ikastetxeak izango duen antolaketa hobetzeko eta irakats jardueren programa ontzat emateko bilduko da. Ikasturte amaieran urteko Memoriako ekarpen gisa, ikasturtearen garapenari buruz bere txostena lantzeko eta hurrengo ikasturterako irakats programan sartuko diren proiektu didaktikoak definitzeko bilduko da.
- Ikastetxearen Curriculum Proiektuaren eta Ikastetxearen Urteko Planeko irakats jardueren programaren lanketan, berau praktikan jartzearen koordinazioa, ebaluazioa eta aldakuntzetan, Klaustroa izango da irakats taldeen proposamenak jasoko dituen.
- Irakasle klaustroa gutxienez hilean behin bilduko da. Era berean, zuzendariak edo zuzendaritza taldeak erabaki edo irakasleriaren herenak eskatzen duen guztietan bilduko da. Idazkariak hartutako erabakien akta egingo du.

Klaustroaren eskumenak

EEPLko 35. artikuluan eta indarrean dauden xedapen batzuetan, Irakasleen Klaustroaren funtzioak zehaztu dira.

1.5. ZUZENDARITZA TALDEA:

Juan Zaragueta eskolako zuzendaritza taldea zuzendariak, ikasketa buruak eta idazkariak osatuko dute, horiek guztiek modu koordinatuan betetzen dituzte beren funtzioak.

Zuzendaritza taldeari dagokio Euskal Eskola Publikoaren Legearen 36.2. atalean esleitutako funtzioak eta, gainera, ikastetxearen irakats praktikan curriculum proiektua betearaztea.

63/2009ko Dekretuak arautzen du zuzendaria aukeratzeko eta pertsona bakarreko beste gobernu-organismoak izendatzeko eta kargua uzteko prozedura.

Zuzendaritza taldea, klaustroaren erabakiaz, lau urtetik behin berrituko da eta irakasle guztiek bertatik pasatzeko konpromisoa hartu dute.

Eskola jarduna hiru esparrutan banatuko da, horietako bakoitza zuzendaritza taldeko kide baten ardura pean:

- Langileei eta kanpoko harremanei dagokien esparrua zuzendariaren eskumena izango da.
- Pedagogiari eta hezkuntza zerbitzuei dagokien esparrua, ikasketa buruari.
- Administrazio, ekonomia eta eskola zerbitzuei dagokien esparrua Idazkariari.

Zuzendaritza taldeak kide bakoitzari dagozkion funtzioekin zerikusia duten erabakiak taldean hartuko ditu. Horregatik, ikastetxeko arazoak eztabaidatzen diren eta kide bakoitzak bere eskumen-esparruan burutuko dituen erabakiak hartzen diren organoa izango da.

Ohiko bilerak gutxienez hilean behin egingo ditugu. Ezohikoak zuzendariak erabaki edo taldeko bi kidek eskatzen duten guztietan.

Zuzendaritza Taldeari dagozkio ondoko zeregin hauek:

- Urteko Planaren eta azken Memoriaren programen lanketa koordinatzea.
- Urteko Planaren martxaren jarraipena egitea, irakats jardueren eta kudeaketaren programarena batez ere.
- Klaustroaren eta Eskola Kontseiluaren bilkuretako gai zerrenda prestatzea
- Informazio bide egokiak finkatzea eta zuzendaritza eta koordinazio organo desberdinetarako beharrezko informazioa antolatzea.
- Eskola Kontseiluaren proposamenak jasotzea, beste ikastetxe publikoekin hitzarmenak ezartzeko, eskolatzea hobetzeko, esperientzia eta baliabideak trukatzeko, eta baita ere, ikastetxeak harreman sistematikoak izango dituen erakunde eta organismoekiko koordinazio moduak finkatzeko.

2. KAPITULUA: LAGUN BAKARREKO ORGANOAK

2.1 ZUZENDARIA:

Juan Zaragueta Herri Eskolako Zuzendaria ikastetxearen ordezkari izango da ondorio guztietarako. Zuzendaria, halaber, Hezkuntza Administrazioaren ordezkari da ikastetxean. Kudeaketa orokor eta jardueraren arduraduna da, irakats jarduerarena bereziki, Eskola Kontseiluak emandako jarraibideen arabera jokatzuz.

Ikastetxeko Zuzendaria eskolako irakasleen artetik klaustroak proposatu eta aukeraketa batzordeak oniritziko du. Zuzendariak aukeratzeko prozedura 63/2012ko Dekretuak arautzen du.

Araudiz xeda dadinari jarraiki, horrela hautatutako zuzendaria, Zuzendaritza postuetan aritzeko berariazko gaitasunerako gaitututa izan edo hautatua izan ondorengo lehenengo deialdian gaitutzen baditu, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak izendatuko du kargu horretarako.

Aurreko lerroaldean oharmandakoaren ondorioetarako, Hezkuntza Administrazioak urtero, zuzendari kargua betetzeari begira, irakasle funtzionarioak gaitzeko beharrezkoak diren hastapen eta hobekuntza ikastaroetarako dei egingo du.

Aurreko atalean adierazitako jardunbidearen arabera, Zuzendaria hautatzea edo izendatzea ezinezko gerta dadinean, baita ikastetxe sortu berrien kasuan ere, Klaustroa eta Eskola Kontseilua entzun ondoren eta araudiz xeda dadin jardunbidez, behin behingoz izendatu ahal izango da ikastetxeko Zuzendaria ezintasunak dirauen aldirako; ezingo dela, inola ere, urtebete baino gehiagorako izan eta administrazioak, hala behar izanez gero, egoki diren zerbitzu eginkizunak eman ahal izango ditu.

Bere egitekoak larriki ez baditu betetzen, ikastetxeko Eskola Kontseiluak Zuzendaria kargugabetzea edo indargabetzea proposatu ahal izango dio Hezkuntza Administrazioari. Administrazioak alde biko espedientea bideratuta gero, izendapena baliogabetzeari edo egitekoak kentzeari ekingo dio, hala badagokio.

Zuzendariari dagozkio Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak bere 34. atalean egozten dizkion funtzioak.

Zuzendariak, bere funtzioak betetz, Eskola Kontseilua eta irakasle klaustroak, hurrenez hurren, beren eskumeneko gaietan hartutako erabakian eta planen arabera jokatu beharko du. Era berean, Hezkuntza Komunitatea dinamizatzea dagokio, irakasleak batez ere, eta beren ekarpen eta interesak jasotzea eta bideratzea, komunikaziorako eta lankidetzarako bideak bilatuz.

Zuzendariari dagozkio ondoko zeregin hauek:

- Zuzendaritza taldearekin batera ikastetxearen funtzionamendu orokorra eta azaltzen diren arazoak ezagutu eta jarraitzea, bertan gertatzen denaren azken erantzule gisa.

- Zuzendaritza talderako, Klaustorako, Eskola Kontseilurako eta Batzorde Iraunkorrerako deialdia egitea, gai zerrenda moldatzea eta bilkura horietan buru izatea.
- Zuzendaritza taldeak Urteko Plana betetzeari buruz lantzen duen txostena transmititzea.
- Bere lehendakaritzapeko organoen erabakiak burutzea edo buruaraztea.
- Ikastetxearen izenean Administrazioarekin, Guraso Elkartearekin eta Gizarte Ongizate, Kultura... erakundeekin harremanak edukitzea.
- Administrazioari ikastetxea ongi antolatzeko, langileriari dagokionez, dituen beharrak aurkeztea eta Ordezkaritzari beharrezko ordezkapenak eskatzea.
- Guraso Elkarteari ondoko dokumentuak igortzea: Urteko Plana, eta Urteko Memoria.
- Gastuei eta ordainketei on iritzia ematea.

2.2 IKASKETA BURUA ETA IKASKETA BURU ALBOKOA [eranskinak\IPI_agindua_eus.pdf](#)

Ikasketa buruak, zuzendaritza taldeko kide den aldetik dituen eskumenez gain, EEPLren 41. Artikuluan ezarri zaizkionak izango ditu. Ikasketa burua da curriculum proiektua eta irakats jardueren programa koordinatu eta gauzatzen direla zaintzeko ardura duen organoa.

Funtzioak:

- Irakaskuntza eta tutoretza jarduerak koordinatzea.
- Eskolako ordutegiak egitea eta betetzen direla zaintzea.
- Irakasle bakoitzari ikastetxeko gela bat edo gehiago izendatzea.

Zereginak:

- Ikuskaritzara irakasleen hutsegiteen hileroko parte igortzea, ezarritako epeen barruan.
- Irakasleen hutsegite eta bajak direla-eta, gertatzen diren bete gabeko lan`postuak betetzeko ezarri diren mekanismoak abiaraztea.
- Elkarbizitza-arazoetan esku hartzea.
- Ebaluazio eta orientabide prozesuak koordinatzea, eskolako kontsultariarekin batera.

Pedagogia esparruaz arduratzen den Zuzendaritza Taldeko kide gisa, Ikasketa buruaren menpe egongo dira Bizikidetzako Batzordea, Batzorde Pedagogikoa, irakats taldeak eta hezkuntza zerbitzuak. Aldizka, eta eskatzen dioten guztietan, organo hauen jardunaren berri emango dio Zuzendaritza taldeari. Zikloko koordinatzaileengandik informazioa jasoko du lan asmoiei, beren burutzapenari eta erabakiei, eta ziklo bakoitzean egiten duten lanari buruz.

Ikastetxearen egoeraren eta ziklo desberdinen analisisan oinarrituta, Ikasketa buruak, Zuzendaritza taldearen lankidetzaz, Urteko Planean sartu beharreko berriazko berrikuntza edo prestakuntza proiektuak proposatuko ditu.

2.3 IDAZKARIA

Idazkariak, zuzendaritza taldeko kide denetik dituen eskumenez gain EEPLren 42. Artikuluan ezarri zaizkionak izango ditu. Ikastetxearen administrazio kudeaketaren organo arduraduna da.

Funtzioak:

- Eskola Kontseiluaren, ikastetxeko zuzendaritza taldearen eta irakasle klaustroaren bilkuretako gai zerrendan sartu beharreko gaiak prestatzea, organo horietako buruak ezarritakoaren arabera eta organo horien bilkuretako akta egitea.
- Aktak, espedienteak eta ikastetxearen beraren agiriak zaintzea, eta bertako organoen eskueran izatea. Ikastetxeko irakats baliabideak zaintzea.
- Zuzendariaren oniritziz, ikastetxearen ekintza, erabaki, hitzarmen, liburu eta agiri guztiak egiaztatzea.
- Ikastetxeko kontabilitatea eramatea.
- Ikastetxearen behar ekonomikoaren zerrenda egitea, bere aurrekontu propioan sartu beharreko gastuei dagokionez.
- Aurrekontua eta beronen likidazio kontuari dagokion agiria prestatzea, Zuzendaritza taldea edo hala badagokio, Batzorde Iraunkorrak, Eskola Kontseiluak onetsi dezan aurkezteko.
- Materialak eskuratzeko eta inbertsioak prestatzeko jardunak burutzea.
- Ikastetxeko inbentarioa egitea.
- Instalazioen mantenua gainbegiratzea.
- Zuzendaritza taldeak edo zuzendariak eskatu edo bere esku uzten dituenak.

Zuzendaritza taldeko kideak ordezkatzeko.

Zuzendaria kanpoan bada edo gaixo badago, ikasketa buruak beteko ditu haren funtzioak behin behinekoz.

Ikasketa burua edo/eta ikasketa burua albokoa kanpoan bada edo gaixo badago, zuzendariak agintzen duen irakasleak beteko ditu haren funtzioak behin behinean. Zuzendariak bere erabakiaren berri emango dio Eskola Kontseiluari.

Idazkaria kanpoan bada edo gaixo badago zuzendariak izendatu duen irakasleak beteko ditu idazkariaren funtzioak. Zuzendariak gertakariaren berri eman beharko dio Eskola Kontseiluari.

3. KAPITULUA: PARTAIDETZA ETA LANKIDETZA ORGANOAK

3.1 PARTAIDETZA.

3.1.1 Gurasoen Batzarra

Juan Zaragueta IPI Gurasoen Batzarraren bidez, gurasoek ikastetxearen kudeaketan parte har dezakete. Ikasle guztien gurasoek edo tutoreek osatuko dute organo hori. Zuzendariak egingo du biltzeko deialdia eta bera izango da bilkuraren buru; ikasturte bakoitzaren hasieran gutxienez behin bilduko da Gurasoen Batzarra, betiere, ez bada beste prozedura bat aukeratzen, artikuluko honen 2. eta 3. e) ataletan azaltzen den ahalmenean oinarrituta.

Gurasoen Batzarraren barruan beste organo bat egon daiteke, zuzeneko eta isilpeko botoaren bidez aukeratuko dena; barne-organoko horrek Gurasoen Batzarraren bilerak antolatuko ditu eta Batzarrak hartutako erabakiak gauzatzen direla gainbegiratu du.

Gurasoen Batzarrak honako funtzio hauek beteko ditu:

- Egokitzen jotzen dituen proposamenak ikastetxeko gainerako organoetara luzatzea, organo horien eskumenekoak diren gaiei buruzkoak. Helarazi diezaieke, beraz, irakaskuntza-jardueren, prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jardura osagarrien programa nahiz urteko kudeaketa-programa gauzatzearen balioespena.
- Zuzendaritza taldearekin eta klaustroarekin kontaktuan egotea, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren garapenean ahalik eta lankidetzaren handiena lortze aldera.
- Gurasoen ekimena sustatzea, ikastetxearen bizitzan aktiboki parte har dezaten.
- Taldeko organoetan gurasoen ordezkari direnak Gurasoen Batzarraren bilkuretarako agertzeko eskatzea, egindako kudeaketari buruzko informazioa eman dezaten.
- Funtzionamendurako bere arauak onestea.

3.1.2 Ikasleen guraso-elkarteak

Juan Zaragueta IPI-k, indarrean dagoen otsailaren 10eko 66/1987 Dekretuak –Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen guraso-elkarteak arautzen dituenak– xedatzen duenaren arabera eratuko diren ikasleen guraso-elkarteak aintzatetsiko ditu, haien egoitza izango da eta ikastetxearen funtzionamenduan parte hartzera lagunduko die.

Zuzendariak zehaztuko du legalki eratu diren elkarteek zer lokal erabiliko dituzten modu iraunkorrean. Zuzendariak, elkartearen ordezkariak hala eskaturik, gune komunak erabiltzeko baimena emango die arestian aipatutako elkarteak.

OOGn ordezkari aritzeko, guraso-elkarterik garrantzitsueneko kide bat aukeratuko da, halaxe zehaztu baita arauetan. Aipatu berri dugun kasuan izan ezik, legalki eratu diren elkarteak ez dira inola ere baztertuko.

Ikastetxeko aginte-organismoek ez dituzte ikasleen gurasoak jardutez edo ez-egitez behartuko elkarte eratuetakoa batean izena ematera ezta elkarte eratuetakoa bat diruz laguntzera ere.

3.1.3 Legalki eratutako elkarteen bidez parte hartzea

Ikastetxean eratu diren ikasleen guraso-elkarteek ondoko hauek egin ditzakete:

- OOGri Hezkuntza Proiektua eta Urteko Programazio Orokorra lantzeko nahiz aldatzeko proposamenak egin.
- OOGri ikastetxearen martxari buruz egoki deritzon alderdien berri eman.
- Hezkuntza-komunitateko kide guztiei bere jardueren berri eman.
- OOGn landu diren gaiei buruzko informazioa jaso. OOGren gai-zerrenda jasotzea hark bilerak egin aurretik, proposamenak prestatu ahal izateko.
- OOGrako txostenak egin, bai guraso berezko ekimenez bai OOGk hala eskatuta.
- AJA aldatzeko proposamenak landu.
- Jarduera osagarriak egitea proposatzea.
- Emaiza akademiko orokorren nahiz berorien gain ikastetxeak egiten duen balioespenaren berri izatea.
- Hezkuntza Proiektuaren, Curriculum Proiektuen eta proiektu horien aldaketen ale bat jasotzea.
- Ikastetxeak hautatu dituen testuliburuei eta ikasmaterialei buruzko informazioa jasotzea.
- Hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko elkarlana sustatzea.
- Ikastetxeko aretoak erabiltzea, zuzendariak ezarritako baldintzetan.

Gure ikastetxean suertatzen den egoera garrantzitsu bat bereziki aipatu eta jaso nahi genuke, hain zuzen ere, Guraso Elkarte eta Guraso Batzarrari dagokiona. Ikusirik Guraso Batzarreko kide guztiak aldi berean Guraso Elkarteko kide direla, bi organo hauek bakarria balira bezala funtzionatzea eta Guraso Elkarteari Batzarrak berezkoak dituen funtzio guztiak esleitzea erabaki da.

Honen ondorioz, Juan Zaragueta ikastetxeak ondoko partaidetza organoak izango ditu:

- Guraso Elkarte
- Guraso elkartearen Zuzendaritza taldea

3.2. LANKIDETZA ORGANOAK

3.2.1 Guraso Elkarte

Ikasle guztien gurasoek osatzen dute.

Guraso Batzarrari Euskal Eskola Publikoaren legeak (38.2 atalean) esleitzen dizkion funtzioak izango ditu.

Guraso Elkarteko Zuzendaritza taldeak ordezkatu du Batzarraren Mahaia. Talde honek bere kideen arteko bat hautatu du bozeramaile bezala.

Zuzendaritza taldea ikasturtearen lehen hiruhilekoan osatu da.

Guraso Elkarteko Batzarra urtean behin bilduko da derrigorrez, ikasturtearen lehen hiruhilekoan. Baita ere, Eskola Kontseiluak zerbait planteatzeko dion guztietan bilduko da, bai bere iritzia jakiteko, bai informazioa edo proposamenen bat pasa diezaion edo baita ere, bere kideen heren batek hala eskatzen duenean.

Guraso Elkarteko batzarrari, derrigorrez, ondoko hauei buruzko informazioa eman eta kontsultatu beharko zaio:

- Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren lanketa eta bere aldakuntza.
- Ikastetxearen Urteko Plana
- Antolakuntza eta Jarduera Araudian bete beharrak eta eskubideak eta elkarbizitzarako eta diziplinarako arauen definizioa.
- Hizkuntza eredu aldaketarako eskaera.
- Ikastetxea eraberritzeko obra garrantzitsuen eskaera.
- Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko ikasleei eska dakizkiekeen gehieneko zenbatekoen zehaztapena.

Guraso Elkarteko Batzarraren deialdia zuzendaritza taldeko bozeramaileak egingo du, zuzendaritza taldeak erabakitako data eta gai zerrendaz. Zuzendaritza taldea, Batzarrak erabakitzen dituen proposamenak eta adierazi nahi dituen iritzia ikastetxeko zuzendaritza taldera helarazten arduratuko da, eta baita, Batzarrak beharrezkotzat jotzen dituen ekintzak burutzen.

Batzarrak aktiboki parte hartuko du Ikastetxeko Eskola Kontseiluko gurasoen ordezkarien hautaketan, ondoko funtzioak bere gain hartuz:

- Juntak hautagaien aurkezpenerako saio informatiboetarako deialdia egingo du.
- Sektoreko ordezkarien hautaketa Juntaren bilkura irekian egingo da, eta honek gutxienez lau orduko iraupena izango du, gutxienez Juntako bi kide buru izanik.
- Juntako lehendakariak egiaztatuko du bozketaren emaitza eta hautatuen izendapena

Guraso Elkarrekin indarrean dauden arauen arabera eratzeko badira eta badirela Eskola Kontseiluari adierazten bazaio bakarrik onartuko dira.

Guraso Elkarrekin ondoko esparruetan jardun dezakete:

- Gurasoen Batzarraren organo exekutiboetan
- Bere sektoreko kideen eta beren seme/alaben defentsan, baldin eta eskubidea zapaldu edo bete beharrak bertan behera utzi direla ulertzen bada;

- Urteko Planaren programaketarako proposamenak aurkeztuz, batez ere, jarduera osagarrien eta eskolaz kanpokoan programarako.
- Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpokoan programaren burutzapenean, eta eskola jardueretan, guraso eta irakasleen arteko lankidetzan.
- Gurasoen informazioan eta prestakuntzan.

Guraso Elkarteak Eskola Kontseiluari burutzen dituen jardueren berri emango dio aldiro.

Guraso Elkarteak ikastetxeko lokalak erabiltzeko eskubidea dauka bere jarduerak burutzeko, baldin eta ez badu eskolako jardun normalean eragozpenik sortzen. Zuzendaritzak beharrezko lokalak eskainiko ditu ikastetxeak dituen aukeren baitan, Elkarteak bere beharren berri eman ondoren.

3.2.2 Erakundeak eta ikastetxearen laguntzaile gisa diharduten elkarteak: udala

Eskola eta udalaren arteko hartu-emanak:

- Beharrezkoa ikusten da urtero aurre kontuak egiterakoan udalak eskolako beharretarako diru kopuru bat izendatzea.
- Badira obra eta lan batzuk aurrez ikus daitezkeenak: eskola margotzea, Kristalak garbitzea, matrikula garaian eskolako informazioa pasatzea... eta horiek automatikoki tokatzen direnean egingo dira.
- Gainontzean, hainbat behar eta egiteko lanak detektatu egin behar dira, oniritzia jaso ondoren udaleko aurrekontutan sar daitezkeen. Detekzio lan hori, eskolan bertan lanean dabilzanak eta udaleko ordezkariak egingo dute.
- Egin beharrekoak detektatu ondoren ekainean bilera egin behar da eskolako zuzendaritza eta udaleko ordezkarien artean, zinegotziekin (obra eta hezkuntza) eta teknikariek, aldi bakoitzeko lehentasunak zehazteko. Eskola Kontseiluan honen berri eman.
- Behin lehentasunak markatzen direnean obrak noiz egingo diren zehaztu behar da.
- Hiru hilekoan behin jarraipen bilerak egin.
- Bilerak egiteko deia eskolatik egin daiteke.
- Tartean suertatzen diren eskaerak bideratzeko prozedura:
 - Eskaera idatziz udalean sarrera emanaz aurkeztu behar da.
 - Hezkuntza batzordeko zinegotziari eskaera horren berri eman.
 - Obrak badira tarteko obretako zinegotziari ere eskaeraren berri eman.
- Zailtasunak izaten ditugu eskaerak egin eta erantzuna jasotzeko. Arren eskatzen dugu egindako eskaerei erantzuna emateko, ezezkoa bada ere, ahalik eta epe motzenean.

4. KAPITULUA: IRAKASKUNTZA KOORDINATZEKO ORGANOAK

4.1 IRAKASLEAK

Irakasleei dagokie:

- Irakats jardueren programazioa landu, garatu eta ebaluatzea, IIP-aren arabera. Taldeko ikasleen ebaluazio eta segimendu orokorra egitea. Horretarako, ikasleen ikaskuntza hobetzeko beharrezkoak diren neurriak ezarriko dituzte, beti ere, ebaluazioari buruzko legeetan ezarri diren baldintzei jarraiki.
- Taldeko bizikidetza-giroa hobetzeko beharrezkoak diren jarduerak ezartzea.
- Taldearen baitan sortzen diren gatazkak modu koordinatuan lantzea eta gatazka horiek ebazteko neurririk egokienak ezartzea.
- Taldeko ikasleei proposatzen zaizkien ikaskuntza- nahiz irakaskuntza-jarduerak koordinaturik egon daitezela zaintzea.
- Taldeko ikasleen gurasoei edo tutoreei emango zaien informazioa ezagutzea eta hura osatzen laguntzea.
- Ikasleen tutoretza bere gain hartzea, ikasleen ikaskuntza eta aukera akademiko eta profesionaleri orientabidea emateko.
- Esleituta dauzkan irakats taldetan parte hartzea, ekintza koordinatua eta eskola testuingurura egokitutakoa definitu eta lortzeko.
- Ikastetxearen Urteko Planean parte hartzea eta bertan sartzen diren berariazko proiektuetan laguntzea dagokion neurrian, eta baita irakats jardunaren ebaluazioan laguntzea ere.
- Prestakuntza jardueretan aktiboki parte hartzea, Hezkuntza Sailak eta ikastetxeko aginte organoek ezartzen dituzten baldintzetan.
- Bere esku uzten diren kargu eta funtzioak betetzea.
- Ikastetxearen antolaketarako eta funtzionamendu egokirako laguntza ematea, Ikasketa buruaren eta AJA-n zehazten diren beste arduradunen koordinaziopean.
- Klaustroaren bilkuretara eta pedagogi koordinaziorako organoetara joatea, eta baita, taldeko aginte organoetara, horretarako hautatua izan bada.
- Izaera orokorraz, Hezkuntza Sailak ezartzen dituen arauak edo ikastetxe bakoitzean aginte organoek ezartzen dituztenak betetzea.

Irakasleek, berez irakaskuntzari dagozkion zereginenez gain, Araudi honek xedatutakoari eta Urteko Planean onartutako urteroko antolaketari jarraiki, ondoko berariazko funtzioen bat bete ahal izango dute:

- Zuzendaritza funtzioa

- Tutoretza funtzioa
- Batzordetan parte hartzearen ardura.
- Hezkuntza eta eskola zerbitzuen ardura.
- Etapako koordinazio funtzioa.
- Proiektuen ardura.

4.2 TUTOREAK

Juan Zaragueta eskolan ikasleek erreferentzia talde bat osatuko dute eta honi tutore bat esleitu zaio. Tutorea berbera izango da zikloan zehar, ahal den guztietan.

Tutoreari dagozkio Haur eta Lehen Hezkuntzaren ezarpen aginduaren 16. atalean egozten zaizkion funtzioak.

Zereginak:

Tutoretza eta orientabide plana garatzea, aholkulariaren eta zikloko koordinatzailearen laguntzarekin. (taldearekin eta ikasle bakoitzarekin). DBHko tutoretza plana ere orientatzailearen aholkuean egingo da.

- Ikasle bakoitzaren jarraipena egitea, taldean parte hartzen duten irakasleengandik informazioa jasotzea eta ikasle bakoitzaren espediente pertsonala betetzea.
- Laguntza/orientabide zerbitzuaren aholkuaz, beharrak dituzten ikasleentzat, indartze neurriak eta curriculum egokitzapenak ezartzea eta hauek praktikan jartzen ote diren gainbegiratzea.
- Taldean parte hartzen duten irakasleei deia luzatzea taldearekiko bere jarduna koordinatzeko eta derrigorrez hiru hileko bakoitzaren bukaeran, ikasleen ebaluazioari ekiteko eta taldean sortzen diren egoerak aztertzeke.
- Asistentzia eta puntualtasun ezak kontrolatzea eta baita diziiplina huts egiteak ere, eta dagokien oharra ikasketa buruari eta gurasoei luzatuz.
- Ikasleei eta hauen familiei, ikasturtearen hasieran, helburu, eskolako programa eta ebaluazio irizpideen berri ematea; urtean zehar, hezkuntza prozesuei eta ebaluazioei buruzko informazioa ematea.
- Ikasleen guraso edo tutoreez arduratzea, Araudi honetan aurre ikusita bezala.

Irakats jardueren programan, ikasleen guraso edo tutoreekin bilera informatiboak zehaztuko dira. Bilera hauek ikasturtearen hasieran, eta urtean zehar, behar adina alditan egingo dira.

Ikasturtean zehar tutoreak ordu batzuk izango ditu taldearen tutoretza plana garatzeko.

4.3 IRAKASLE TALDEAK

Juan Zaragueta eskolan Irakasleek lan koordinatua egingo dute eta horretarako irakats taldetan antolatuko dira. Ikastetxeko irakasle guztiak gutxienez irakats talde bateko kide izan beharko dute.

Urtero, irakats jardueren programa lantzerakoan eta onartzerakoan, ikastetxean funtzionatuko duten irakats taldeak, hauen kideak eta funtzionamendu erregimena (bilerak zenbatean behin egingo diren, lanerako plana, informazioa eta beste taldeekiko harremanak,...) finkatuko dira.

4.3.1 Etapako irakasle taldeak

Etapak eskola curriculum antolatzen den unitatea da, eta berezko helburuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak ditu, Ikastetxearen Curriculum proiektuaren arabera.

Etapak batean esku hartzen duten irakasle guztiek etapako irakasle taldea osatzen dute. Irakasle batzuk etapa baten baino gehiagotan egon daitezke beren jardunean, baina etapa horietako talde bateko bileretara joango dira.

Irakats zereginen banaketan, lehentasuna emango zaio zikloan ahalik eta irakasle gutxienez esku hartzeari eta irakasle bakoitzak ziklo bakarrean edo segidan dauden zikloetan eskolak emateari.

Etapako irakasle taldearen bilera irakasleen oinarrizko koordinazio modua da. Taldeok etapako eskola jardueren programazioari eta koordinazioari buruzko erabakiak hartzeko ahalmena dute, Curriculum Proiektuaren eta Klaustroaren esparruaren baitan.

Etapako talde baten zereginak ondokoak dira:

- Etapako taldeen egoera akademikoa aztertzea, beren behar orokorrak antzematea eta berauei erantzuna ematea.
- Ziklo, maila eta ikasturtea banatzen den aldi bakoitzaren helburuak edukiak eta ebaluazio irizpideak finkatzea.
- Etapako jarduera orokorrak, ebaluazio bilkurak eta jarduera osagarrien burutzapena antolatzea.
- Taldeen tutoretza jardunak eta familientzako informazio orokorra prestatu eta koordinatzea.
- Berrikuntza proiektuak edo etaparekin zerikusia duten antzekoak koordinatzea.
- Klaustroaren proposamenak aztertu eta berauei erantzutea; era berean, klaustroari proposamenak igortzea, dagokion organoan azter daitezen.

Etapako taldeak astero elkartzen dira, urteroko irakats jardueren programan finkatutako plana burutzeko.

Irakasleen arteko bilera edo formakuntza saioetan mugikorrak jasota eta isilik izango ditugu.

Ikasleen aurrean ez dugu mugikorrik erabiliko; ikas-jardueraren baterako ez bada.

Etapako talde bakoitzak koordinatzaile bat izango du; ikasturte hasieran kideen artean hautatua. Klaustroari horren izendapena proposatuko diote onespena eman diezaion.

Etapako **koordinatzaileak** ondorengo **funtzioak** izango ditu:

- Curriculum proiektuarekin eta ikastetxeko urteko programazio orokorren arabera dagokion etapako irakaskuntza koordinatzea.
- Etapako ebaluazio prozesuak koordinatzea.
- Etapako ordezkari gisa Batzorde Pedagogikoan parte hartzea.
- Ikasketa buruak agindu diezazkion gainerako egitekoak.
- Etapa bileretako gai zerrenda prestatzea, ondorioak eta akordioak jasotzea eta betetzen ote diren begiratzea.
- Ukitu diren gaiak eta hartu diren erabakiak jasotzen dituzten bilkuren aktak egitea. Era berean, etapako taldeak lantzen dituen dokumentuak eta materialak eta etapan normalean erabiltzen diren baliabide didaktikoak jaso eta edukitzea

Etapako koordinatzaileek lehentasuna izango dute, Zuzendaritza taldearen ondoren, ordu banaketan bere zereginak egin ahal izateko denbora edukitzeko.

4.3.2 Zikloko irakasle taldeak(LH)

Zikloko irakasle taldeak zikloan ingurune, euskara edota matematika ematen duten irakasleek osatzen dituzte. Koordinaziorako foroa izango da.

Funtzioak:

- Zikloan landu beharreko proiektuak planifikatzea.
- Proiektuekin garatuko diren curriculum alderdiak zehaztea.
- Jarduera osagarriak antolatzea.
- Curriculum materialak prestatzea.
- Epeak markatzea.
- Ebaluazio irizpideak definitzea.
- Jardun orokorrean edota arlo bat irakatsi eta ikasterakoan sortzen diren eragozpenak aztertzea, eta gaingitu ahal izateko irtenbideak bilatzea

Astero elkartuko da. Ikasturte hasieran ordutegiak egiterakoan bilera hauek eskola ordutan sartzeko ahalegina egingo da.

4.3.3. DBHko departamentu didaktikoak

Departamentu didaktikoak irakasleek osatzen dituzten irakas-taldeak dira, arlo edo gai baten curriculum-a garatzeko, curriculum-materialak eta ebaluazio-tresnak lantzeko edo guztien interesa duten gaiak aztertzeko. adibidez aniztasunaren trataera, tutoretza, zeharlerroak...

Departamentuek staff izaera dute, eta eztabaida-funtzioak dituzte, ez erabakitzaileak. Beren proposamenak, kasuan kasu, Zuzendaritza-Taldeak, Mintegi buruen Batzordeak edo Batzorde Pedagogikoak berresten dituztenean soilik izango dira lotesleak.

Departamentuen funtzioak ondokoak izango dira:

- Curriculum-Proiektuaren garapenerako edota aldakuntzarako proposamenak lantzea.
- Arlo edo gai baten programazioa garatzea, Curriculum-Proiektuaren arabera, ziklo baterako edo batzuetarako, baliabide didaktikoak edota ebaluazio-tresna egokiak garatzea.
- Eskola-testuinguruko edo arlo bateko arazo orokorrak direla eta, irakatsi eta ikasteko prozesuan sortzen diren eragozpenak aztertzea, hauek hezkuntza eta prestakuntza-berrikuntzaren bidez gainditu ahal izateko.

Irakas-jardueren programan, Urteko Planean sartzen diren Proiektuak burutzeko ikasturtean zehar funtzionatuko duten Departamentuak zehaztuko dira, eta beren lanerako plana finkatuko da.

Departamentuetara, burutu beharreko proiektuan esku hartuko duten irakasleak adskribatuko dira, eta ezin izango dute Departamentu bat baino gehiagotan parte hartu. Departamentu bakoitzak taldearen koordinazio-funtzioak beteko dituen arduradun bat izango du.

Departamentuak astero bilduko dira, lanorduetan, finkatutako orduan. Irakasgai/arloei dagozkien Departamentuak ikasturtearen hasieran bilduko dira, kurtso desberdinetako urteko curriculumak, lehen ebaluazio aldian praktikan jarriko dena, zehazteko; ebaluazio-bilkura bakoitzaren ondoren, emaitzak aztertu eta hurrengo irakastaldia programatzeko.

Departamentuaren arduradunaren funtzioak ondokoak izango dira:

- Departamentuaren lana zuzentzea eta koordinatzea.
- Bilerak antolatzea eta zuzentzea.
- Programaketaren edukinak eta gutxienezko exigentzia-maila bete daitezen arduratzea, ohizko bideetatik kurtsoa gainditu ez duten guztientzako ohiko eta ezohiko frogak berdintsuak segurtatuz.
- Departamentuak egindako ohiko eta ezohiko frogen kalifikazioa ikuskatzea.
- Departamentuko kideen lanak banatzea.
- Departamentuan gertatzen den edozein oker ikasketa-buruari adieraztea.
- Bileretako agiriak egiten direla bermatzea.
- Batzorde Pedagogikoan parte hartzea.

4.3.4. Ebaluazio taldeak

Taldean esku hartzen duten irakasle guztiek, ikasketa buruak eta orientatzaile/aholkulariak hartuko dute parte ebaluazio saioetan HH2 eta HH3n izan ezik.

Saio hauek hiruhilekoaren amaieran planifikatzen dira talde bakoitzeko saio bat eginaz Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan; Haur Hezkuntzan ikasturtearen erdian (otsaila) eta amaieran (ekaina). Saioak ordu lektiboetatik kanpo egiten dira eta klaustro eta etapa bilerak errespetatuz.

Prozedura:

- Bilera egin aurretik tutoreari irakasle guztiek kalifikazioak emango dizkiote, berak eskura izan ditzan, horrela, ebaluazio bilerak arinago joango dira eta.
- Bileraren gai nagusia gurasoei komunikatuko zaiena izango da.
- Bileraren akta ikasketa buruak jasoko du.

4.3.5. Mailako irakasle taldeak.

Aparteko laguntza behar duten ikasleekin esku hartuko duten irakasle taldea elkartuko da beharren arabera.

Bilera hauek 2. eta 3. hiruhilekoaren hasieran egingo dira maila bakoitzeko bilera bat.

Bilera hauetan tutoreak, ikasleekin esku hartzen duten irakasleek eta aholkulariak hartuko dute parte.

Funtzioa: Familiekin bilera egin ondoren tutoreak gainerako irakasleei informazioa pasatzeko, zailtasunak dituzten ikasleen gorabeherak, gurasoen iritziak,...

Ziklo bileretako saioak erabiliko dira horietarako eta antolaketa eta deia Etapako koordinatzaileak egingo du.

4.4. HEZKUNTZA ZERBITZUAK

Hezkuntza zerbitzuek irakasleei laguntza emateko funtzioa dute, hauek bere betebeharrak ahalik eta hobekien egin ditzaten.

4.4.1.Laguntza zerbitzua

Laguntza zerbitzua ikasturte hasieran eratuko da eta laguntza ardurak izango dituzten irakasle guztiek osatuko dute.

Partaideak:

- Aholkularia
- Orientatzailea
- Pedagogia terapeutikako irakaslea
- Ikasketa burua
- HEI(Hipi)-a
- Hezkuntza Laguntza Espezialistak

- Logopeda
- Laguntza emango duten irakasleak (behar denean)

Zerbitzu honetako buru eskolako aholkularia eta orientatzailea izango dira eta gutxienez hiruhilean behin zerbitzuaren berri ikasketa buruari emango diote.

Funtzioak:

- Taldekoen ordutegiak zehaztea
- Ikasleen arazo orokorrak aztertzea eta urteko planerako eta tutoreentzako proposamenak lantzea.
- Ikastetxeko egoera desberdinetan erabil daitezkeen hezkuntza indargarriko eta curriculum egokitzapeneko neurriak aztertzea eta horiei buruz proposamenak egitea.
- Indartze neurriak planifikatzea.
- Etorri berriei hasierako ebaluazioa egitea eta batez ere, hezkuntza indartzeko neurriak planifikatzea.
- Ikasturte amaieran indartze neurrien eta curriculum egokitzapenen inguruko informazioa klaustroari ematea.
- Ikasturte amaieran hurrengo ikasturteari begira irakasleen aldetik sortzen diren beharrak jasotzea.
- Etorri berrien harrera plana zehaztea, hasierako ebaluazioa nolakoa izango den zehaztea eta indartze neurriak erabakitzea.

Laguntza zerbitzua ikasturte hasieran elkartuko da eta ikasturtean zehar behar den guztietan.

Entzun egin beharko zaio, irakats jardueren programan aniztasunaren eta hezkuntza premia berezien laguntzaren antolaketa eta gai hauei buruzko berariazko proiektuak sartu aurretik, eta Berritzegunera curriculum egokitzapen esanguratsuak edo aparteko baliabideak dituztenak egiteko eskaera igorri aurretik.

4.4.1.1 Aholkularia

- Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza du lan eremu.

Funtzioak

- Tutorearekin eta irakasle taldearekin ikasleen zailtasun egoerak aztertzea eta komenigarriak izan daitezken hezkuntza neurriei buruz (indartzeak zein egokitzapenak) aholkua ematea.
- Ikasle taldearen funtzionamenduan eragina duten aldagaiak tutorearekin aztertzea eta aniztasunari hobeto erantzuteko neurri metodologikoei zein antolatzaileei buruz aholku ematea.

- Arloetan eta tutoretzan gaitasunen garapenari buruz aholku ematea: ikasten ikasi, autonomia eta ekimena...
- Familiei seme-alaben hezkuntza gaietan aholkua ematea: ikaste-zailtasunak, hezkuntza ibilbideak hautatzea,...
- Ikasleei orientazio pertsonalari zein akademikoari buruz aholkua ematea.
- Zuzendaritza taldeari Elkarbizitza Planari buruz aholkua ematea.
- Koordinazio Batzorde Pedagogikoari hobekuntza planetan aholkua ematea.
- Zuzendaritzarekin batera, Aniztasunari erantzuteko plana diseinatzea (Indartze Neurriak, Bidelaguna, Kulturartekotasuna, ...) eta horien jarraipena eta balorazioa egitea.
- Irakaslearekin batera gelan aritzea (laguntza zuzena)
- Ikasle bati, edo talde txiki bati, gelatik kanpo laguntza ematea.
- Kanpoko eragileekin eta gizarte-hezkuntzako laguntzaileekin kolaborazioa koordinatzea.
- Zuzendaritzaren laguntzarekin hezkuntza-ikerkuntzak eta praktika onak ikastetxean zabaltzea.
- Ikaskuntza prozesuetan ikasteko eta parte hartzeko oztopoak gainditzeko ekintzak sustatzea eta aniztasunari erantzuteko irakasleen gaitasunak hobetzea.

4.4.1.2 Orientatzailea

DBHko eremuan betetzen ditu bere funtzioak.

Funtzioak:

- Orientazio Plana prestatu eta ikastetxearen tutoretza-plana prestatzeko aholkuak eman tutoreei.
- Eskola orientaziaren banakako txostena egin.
- Ikasleei lanbide-orientazioa emateko programa prestatu.
- Ikastetxeko Koordinazio Pedagogikorako Batzordearekin elkarlanean aritu.
- Irakaskuntza-prozesuak berritzeko programak sustatu.
- Ikasleek ikasteko zailtasunak dituzten egoerak aztertu eta curriculumak egokitzeko neurriak buruz aholkatu.
- Elkarbizitza-arazoak konpontzen lagundu.
- Ikasleei berriarazko arreta emateko plan eta programak diseinatu, ebaluatu, jarraipena eman.
- Maila bakoitzeko tutoreekin koordinazio bilerak egin, taldeko tutoretza-plana osatzeko, eta, bereziki, ikasleak orientatzeko programatutako jarduerak buruz.

- Ikastetxetik kanpoko hezkuntza eta gizarte eragileekin eta komunitate-eragileekin koordinatzen lagundu.
- Zuzendaritzarekin batera, Aniztasunari erantzuteko plana diseinatzea (Indartze Neurriak, Bidelaguna, Kulturartekotasuna, ...) eta horien jarraipena eta balorazioa egitea.

Beharrak antzematen direnean jarraitu beharreko prozedura

- Ikasle bati, ikas-talde bati... zailtasunak antzematen bazaizkio, tutoreak aholkulariarengana joko du.
- Aholkulariak ikastetxeko ohiko baliabideekin eskaera horri erantzuten saiatuko da (behaketa egin, datu bilketarako tresnak eskaini...).
- Eskolako ohiko baliabideak ez badira nahikoak, kontsultoreak Berritzeguneari ebaluaketa psikopedagogikoaren eskaera formala egingo dio. Gurasoen baimen idatzia behar da horretarako. Zenbait kasutan beste bide batzuk ere aukera daitezke: eskaintza pribatua, Foru Aldundia, Udala (Ongizate Zerbitzua), Osakidetza (pediatra)...
- Berritzegunetik Multiko gure erreferenteak erantzun behar dio eskaerari eta orientabideak eman ikastetxeari eta gurasoei:
 - test-ak pasa edo diagnostikorako beste frogak egin
 - aholkulariarekin batera interbentzioa planifikatu
 - interbentzioaren ebaluazioa egin (hiruhiletik behin?)

4.4.1.3. Pedagogia Terapeutika irakasleak

Eskolako irakasle eta kanpoko laguntza zerbitzuekin koordinatzen da.

Funtzioak:

- Tutoreari umeen behaketan lagundu eta beharrezkoa bada materiala eta ekintza ezberdinak edo kanpo laguntzako harremanak proposatu.
- Tutorearekin koordinatu jarraipena egiteko
- Ikasleen beharrak automaten lagundu.
- Gurasoei hartu beharreko neurrien berri eman, eta ekintzen inguruan gomendatu

4.4.1.4. HEI. Hizkuntza errefortzurako irakaslea (Hipi)

Funtzioak

- Hizkuntza indartzeko gelako programazioa egitea, ikasleen beharretara egokitua.
- Ikasle horientzat banakako esku-hartze plana egitea, tutorearen laguntzarekin.

Antolakuntza eta jarduera araudia

- Ikasleak zein diren jakitea eta taldetan biltzea.
- Material didaktikoak aztertzea, antolatzea eta prestatzea, ikuspegi egokiak erabiliz.
- Dagokion hezkuntza-errefortzua ematea.
- Gainerako irakasleekin koordinatzeko prozesua ezartzea, lanerako plan pertsonala prestatzeko eta plan horren gauzatzearen jarraipena egiteko.
- Iritsi berri diren ikasleen harrera eta integrazioa erraztea, haien gaitasunak garatu ditzaten laguntzea, eta ikastetxeko jardueretan parte har dezaten sustatzea.
- Ikasleen aurrerapenen eta ikaskuntzen ebaluazioan parte hartzea.
- Materialak eta edukiak egokitzea, zikloko eta etapako curriculumaren ikuspegia aintzat hartuta.
- Hizkuntzak irakasteko jardueren plangintza egitea.
- Hezkuntza-prozesuan kulturarteko ikuspegia sartzeko jarduerak diseinatzea.

4.4.1.5. ALE

Funtzioak

- Ikasleek hizkuntza-garapenean dituzten zailtasunak identifikatzea, irakasle-tutorea, kontsultorea eta orientatzailea lankide dituztela.
- Orientabideak eta laguntza-materialak ematea tutoreei eta laguntza-irakasleei.
- Hezkuntza-premia berezien (HPB) aholkulariekin lankidetzan aritzea, hala behar denean, entzumenaren eta hizkuntzaren alorrean zailtasunak dituzten ikasleen diagnostiko psikopedagogiko espezifikoan.
- Koordinazio egokia eramatea, ondokoak aintzat hartuta: irakasle-tutorea, fisioterapeuta, terapeuta okupazionala, hezkuntza-laguntzako espezialista, pedagogia terapeutikoko irakasleak, HPB aholkulariak..., zertarako eta esku-hartze logopedikorako planaren hasierako balorazioa, diseinua, garapena, jarraipena eta ebaluazioa egiteko. Baita familiei informazioa eta jarraibideak emateko ere.
- Jarduteko eta curriculum egokitzeko plana prestatzen laguntzea.
- Komunikazioaren alorreko HPBak erakutsi dituzten ikasleekiko zuzeneko eskuhartzearen bidezko berrezkuntza-programa prestatu, garatu eta gauzatzea, jarritako orientazioak aintzat hartuta, eta dagokion irakasle-tutorearekin koordinatuta.
- Irakasle-taldearekin batera parte hartzea eskola-curriculumaren hizkuntza alderdien inguruko lan-taldeetan, eta komunikazioarekin eta hezkuntzarekin zerikusia duten programak prestatu eta garatzen (ikastetxearen curriculum-proiektua, ziklo- eta gela-programazioak eta curriculum-egokitzapenak).
- Irakasleei aholkularitza ematea, hizkuntzaren alorreko zailtasunen prebentzio eta tratamendurako jarduerak programatu eta gara ditzaten, ikasleen aniztasunari edo dibertsitateari eman beharreko erantzun global gisa.

4.4.1.6. HLE. Hezkuntza Laguntzarako Espezialistak

Funtzioak



Hezkuntza Premia Bereziak(HPB) dituzten ikasleekin egingo dituen jardueretan gauzatuko dira honen funtzioak:

- klase orduetan(solasaldiak barne)
- garraio eta jantokian
- ordutegi berezia duten egunetan(irteerak...)
- koordinazioan(ikastetxea, berritzeguneak...)
- materialen prestaketan.

5. KAPITULUA: ESKOLAKO ZERBITZUAK

5.1. JANGELA

Jangelako arduraduna ikasleen asistentziaz, zaintzaileek behar bezalako arreta eskaintzeaz, otorduen kalitateaz edo osasunagatiko zaintza berezia behar dutenen egoera bereziaz arduratuko da.

Jangelako kuota:

Jangela kuota baten ordainketa ezaren aurrean, familiarekin harremanetan jarriko gara (telefonoz, emailez, paperez) egoeraren berri emateko.

Jakinarazpen hauei kasurik egiten ez bazaie eta ordainketa ezak jarraitzen badu, hiruhileko bukaeran berriro ere, familiarekin harremanetan jarriko gara (telefonoz, emailez, paperez, burofaxes) egoera berria azalduz, hau da, zorrak kitatzen ez baditu, jangela zerbitzua ezingo dutela erabili. Hala ere, zorra kitatu gabe jarraitzen badu eta gainera, hurrengo hilabeteko kuota ordaindu gabe gelditzen bada, hortik aurrera ezingo du jangela zerbitzua erabili zorra kitatu arte.

5.2. ZAINZA ZERBITZUA

Eskolako edozein ikaslek erabil dezake eta hauek langile baten zaintzapean egongo dira. Zerbitzua goizeko 07:30etatik 09:00etara , eta arratsaldeko 16:00etatik 17:00etara eskaintzen da. HH2ko ikasleentzat doan da, eta gainontzekoentzat, zaintza motaren eta seme-alaben kopuruaren arabera, diru kopurua aldatu egiten da.

5.3. ESKOLA GARRAIOA

Autobus-zerbitzua goiz eta arratsaldez ematen da, eta zaintzaileak daude ikasleez arduratzeko.

Zerbitzua erabat doakoa da garraioa dagokien ikasleentzat.

ELKARBIZITZARAKO ARAUAK

2. ATALA

1. KAPITULUA: PRINTZPIO OROKORRA

1.1 ELKARBIZITZAREN OINARRIAK

Bizikidetza bermatzeko, batetik, hezkuntza komunitate osoak ikasleen eskubideak errespetatu eta babestu behar ditu ezinbestean eta, bestetik, ikasleek beren eskubideak eta eginkizunak arduraz bete behar dituzte, titulu honetan ezartzen denarekin bat etorritik.

1.2 ELKARBIZITZA PLANA

Bizikidetza-plana, hezkuntza, unibertsitate eta ikerketa Sailak xedatzen duenarekin bat eginaz osatuko da. Bizikidetza-planaren helburu nagusia bizikidetzan gerta daitezkeen gatazkak prebenitzea da. Gatazkarik gertatuz gero, beroriek nola ebatzi aurreikusiko da. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren bitartez, aukerako zenbait bide ezarri ziren hainbat jarduera eta neurri aplikatzeko. Hartara, gatazkak ebazteko, aipatu berri dugun Dekretuaren bidez ezarri ziren neurriak aplikatuko dira. Horretarako, beharrezko balitz, bitartekaritza-prozedurak erabil daitezke.

2. KAPITULUA: IKASLEEN ESKUBIDEAK

2.1 SARRERA

Ikasleek Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 6. artikulutik 21. artikulura bitartean jaso diren eskubideak izango dituzte.¹ Irakasleren batek ikusten badu ikasleren baten jokabidea arestian aipaturiko eskubideen kontra doala edo eskubide horiek betetzea galarazten duela, esku hartu beharko du berehala. Jokabide okerra izan duen ikaslea ahoz ohartarazi beharko du eta, ondoren, ikasketa buruarengana joateko agindu.

2.2 IRAKASLEEK IKASLEEN ESKUBIDEAK BABESTEN LAGUNTZEA

Irakasle guztiek abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren bidez ikasleei aitortu zaizkien eskubideak babesten lagunduko dute. Horretarako, araudi honetan eta aginte-organismoen jarraibideetan zehaztutakoari jarraituko diote.

Babesgabetasun-zantzuak jakinarazteko betebeharra.

“Ikastetxe honek honako hau jakinarazten die gurasoei: Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Eusko Jaurlaritzaren Legearen arabera (otsailaren 18ko 3/2005 Legea), ikastetxean uste bada ikasleren bat babesgabetasun-egoeran dagoela susmatzeko zantzuak daudela; hau da, uste bada ikasle horren zaintzaileek beren funtzioak betetzen ez dituztela, ikastetxeak egoera hori jakinaraziko die gizarte-zerbitzuei, legeak hala aginduta. Jakinarazpena eginez gero, horren berri emango zaio ikaslearen familiari”.

2.3 SEGURTASUNAREKIN LOTURA DUTEN ESKUBIDEAK ZAINTZEA

- Tutoreek nahiz gainerako irakasleek hautematen badute ikasleren bat tratatu txarrak jasotzen ari dela edo, Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 7.2 eta 7.3 artikuluetan aurreikusitakoarekin bat, haurren bat arriskuan edo babesik gabe dagoela, ikasketa burua edo zuzendaria jakinaren gainean jarriko dute.
- Irakasleek berdinkideen arteko tratatu txarrak prebenitu edo ahalik eta lasterren hauteman behar dituzte. Irakasleek, tratatu txarren arrastorik antzemanaz gero, zuzendaritza taldea jakinaren gainean jarriko dute berehala, protokolo egokiak aplikatu daitezkeen.
- Ikasketa buruak, ikasle guztiak kontrolatzeko bezainbeste irakasle izendatuko ditu jolas-orduan. Irakasleek jolas-orduan ikasleen jarduna zaintzea nori dagokion jakin behar dute. Irakasleek bertatik bertara egon behar dute eta uneoro ikasleei begira egon. Zuzendariak jolas-orduan zenbait toki erabiltzea debekatu dezake, irakasleen zainketa zailtzen badute.

¹ XII. eranskinean 201/2008 Dekretua ageri da oso-osorik.

2.4 ONDRA, INTIMITATEA ETA IRUDI PROPIOA BABESTEKO ESKUBIDEA

Ikasleek nahiz hezkuntza-komunitateko gainerako kideek haien ondra, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea dute. Horrenbestez, Juan Zaragueta eskolako aginte-organoek, tutoreek eta irakasle guztiek babestu beharko dute ikasleen nahiz hezkuntza-komunitateko kideen eskubide hori. Ikastetxean grabazioak egitea, argazkiak ateratzea eta sakelako telefonoa erabiltzea galarazita dago, irakasleen baimenarekin ez bada.

Ikasgelatik kanpo –hau da, eraikinean edo eskola barrutian – aipatu berri ditugunak erabiltzea baimentzen bada, egoki izan daitezkeen muga guztiak proposatu daitezke. Batera zein bestera, debekaturik egongo da hezkuntza-komunitateko kideren bati bere baimenik gabe argazkiak ateratzea edo hura filmatzea. Debekatuta dago hezkuntza-komunitateko kidearen baimenaz atera den argazkia edo egin den grabazioa interesdunaren baimenik gabe erabiltzea.

Ikastetxeak haurrei argazkiak edota grabazioak egin eta haien erabilera publikoa egin ahal izateko ikasturte hasieran gurasoen baimena eskatuko du.

2.5. IKASLEEN GREBA DEIALDIRAKO PROZEDURA

201/2008ko Dekretuak arautzen duen moduan, deialdi bakoitzerako **DBH 3 ETA DBH 4ko ikasleen guraso edo tutore legalek eskubide hau bermatuko duten ikasleek, besterik ez dute eskubide hau onartuta izango. Protokoloa martxan jarri ahal izateko baimenak gutxienez guztien erdia gehi bat izan beharko dute**

1. Sindikatu, alderdi politikoetako ordezkariak edo grebaren arrazoiekin sentsibilizatuta dauden pertsonak konbokatuta eta ikasgeletako ordezkariak hitz egingo dute.
2. Ikasgeletako ordezkariak biltzeko eskaera zuzendaritzan egingo da ondorengo baldintza hauekin batera:
 - Ikasgeletako ordezkarien heren baten sinaduraz, bilera egiteko baimena zergatiak azalduz.
 - Lurraldean argitaratzen diren egunkarietatik gutxienez batean agertzen den greba deialdiaren agiria.
3. Hauek, botatu ondoren (baiezkoa %50 edo gehiago bada), proposamena ikasgeletara eraman ala ez erabakiko dute.
4. Klasera ez joateko proposamena, behar bezala arrazoitua, idatziz, egingo da, deia egiten dutenek nork konbokatzen duen, eguna, ordua eta programatutako ekintzak adieraziz.

5. Bigarren klasea amaitzen denean, atsedenaldira, eta irakaslea aurrean delarik, ordezkariak informazio guztia emango dute. Informazio hau idatzita aurkeztu beharko da.
6. Ondorengo bozketa, norbanakoa eta isilpekoa, irakaslea aurrean delarik egingo da.
7. Bozka bilketa ordezkari eta irakasle artean egingo da eta emaitzak ordezkariak eta irakasleak izenpetu beharko dituzte akta baten bidez eta irakaslearen oniritziarekin.
8. Gela bakoitzeko bozketaren emaitza idatziz jasoko da. Gelako ordezkariak eta irakasleak izenpetuko dute eta ondoren zuzendaritzari emango zaio emaitza 48 ordu lehenago. Premiazko deialdietan 24 ordu lehenago nahikoa izango da onartzeko
9. Emaitzak erabakigarriak izateko, planteamenduak eta bozketak akatsik gabekoak izan behar dute eta gehiengo absolutua lortu behar da, hau da, ikastetxean egon beharko luketen (bozkatzeko baimena duten) ikasleen erdia gehi bat. Kopuru horretara iristen ez bada botazioa baliogabetu egiten da, eta ezingo da deialdi berdinerako beste botaziorik egin; beraz, deialdia besterik gabe, baztertu egingo da
10. Lortutako quoruma nahikoa bada, ikasketaburuak deialdiaren emaitza publiko egingo du, deialdiarekin batera.
11. Onetsitako deialdiari jarraiki eskolara ez agertzea ez da hutsegitzat joko
12. Ikasleak adin txikikoak direnean, klasera ez joatea, beren guraso edo legezko ordezkariak jakinaraziko zaie antolamendu eta funtzionamendu araudian edo ikastetxearen barne araudian jarritako bideetatik.
13. Nolanahi ere, klasera ez joateko deialdi erantzun nahi ez diotenei, ikastetxean, dagokien irakasleekin ikasgelan egoteko eskubidea bermatuko zaie klasea emanaz
14. Klasea uztea erabakitzen bada, irakasleak ez du zertan, ordu horretako gaia errepikatu behar.
15. Klase ordua galdu duten ikasleen ardura izango da hori errekuaratzea

16. Greba egunak eta azterketak. Greba egunetan azterketak baldin badaude eta posible bada (erdia gehi bat baino gehiago falta badira), hurrengo egunera pasako dira.
17. Eskolaz kanpoko ekintzak greba egunetan. Ezin badira atzeratu, planteatuta zeuden bezala egingo dira. Hala ere, ikasleren batek greba egitea erabakiko balu, ezingo lioke ikastetxeari ekintza hori ordaintzeko jarri duen dirua edo kuota itzultzeko eskatu.
18. Ez da autobusen eta eskolako jangela ordutegia edo txanda aldatuko greba egunetan, eta egunero bezala autobusa betiko orduan etorriko da ikasleak jasotzera.

2.6. DBH4KO IKAS BIDAIA PROTOKOLOA ([Ikus protokoloa](#))

3. KAPITULUA: IKASLEEN BETEBEHARRAK

3.1 SARRERA

Ikasleek [Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko](#) 21. artikulutik 27. artikulura bitartean jaso diren betebeharrak bete beharko dituzte. Irakasleren batek ikusten badu ikasleak ez dituela bere betebeharrak bete, haren jokabidea zuzendu beharko du berehala. Horrez gain, irakasleak uste badu, ikasleak hezkuntza-komunitateko bizikidetzaren aurkako jokabide bat izan duela, ikasketa buruarengana joatea aginduko dio.

Arau hauek harreman guztiak giro onean mantentzeko helburua dute, baita instalazioen eta baliabideen segurtasuna eta baldintza egokiak bermatzeko ere.

(Letra normalez idatzitakoak dekretutik hartutako artikuluen laburpenak dira, eta kurtsibaz, Zaraguetak erantsitakoak.)

3.2 BETEBEHARRAK

21. artikulua.- Ikasteko betebeharra.

Ikasleonek betebeharra da gure gaitasun guztiak alaitik gehien garatzeko ikastea eta ahalegina egitea.

Ikasleok lanerako giro egokia sortzen eta giro horri eusten lagunduko dugu, eta gure portaerarekin ez dugu eragozpenik sortuko gelan.

Irakaslea gelan sartzen den unean gure lekuetan eserita egongo gara, behar ditugun gauza guztiak eskura ditugularik. Horrela, ezertarako jaiki beharrik ez dugu izango.

Irakasle edo ikasleren bat denontzat hizketan ari denean, beste guztiok isiltasuna gorde eta errespetuz entzungo dugu.

Gela barruan ez dugu ezer jango, ezta txiklerik ere, ez bada irakaslearen baimenarekin.

22. artikulua.- Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko betebeharra.

Ikasle guztiok hartu behar dugu parte prestakuntza-jardueretan, interesez jardunez, agintzen dizkiguten lan pertsonalak eginez eta antolatzen diren lan-taldeetan lagunduz.

23. artikulua.- Bertaratzeko betebeharra.

Ikasleok egunero etorri behar dugu eskolara, puntualtasunez eta justifikatu gabeko absentziarik izan gabe, eta sartzeko nahiz irteteko ordutegiak errespetatu behar ditugu. Ikaslea adingabea bada, haren gurasoek edo legezko ordezkariak idazki bidez arrazoitzen ez dituzten hutsegiteak, justifikatu gabekotzat hartuko dira.

Ikasleok, azterketara bertaratzea ezinbestekoa dela jakin behar dugu. Ezuste larriren batengatik (gaixotasuna, heriotza, istripua...) ez bagara bertaratu, egun berean, ikasleok, edo gure arduradunek jakinaraziko dute egoera eskolan, eta bueltatzen garenean zorrotasunez (agiri ofizialez) justifikatuko dugu azterketara etorri ez izana, gaixotasunen kasuan medikuaren agiriarekin. Kasu hauetan galdutako azterketa, ondo justifikatutako ez-etortzearen ondorioa bada, beste aukera bat emango zaigu, eta prozedura irakasle taldeak jasota edukiko du programazioan.

Edozein saio dela ere, ikasleak 10min baino beranduago etortzen bagara, ez gara gelan sartuko saio hori bukatu arte. Zaintzakoarengana joan beharko du.

24. artikulua.- Bizikidetza errazteko betebeharra. Ikasleok parte hartu eta laguntza eman behar dugu ikastetxean eskola-bizikidetza hobetzeko eta ikasteko giro egokia lortzeko. Horretarako:

Ikasleok gure ikastetxeko Bizikidetza Arauak ezagutu behar ditugu.

Kide guztien eskubideak errespetatu behar ditugu eta portaera egokia izan, haiekin guztiekin.

Elkarbizitzaren aurkako jarrera edo jardura desagokiak, bizikidetzaren aurkakoak edo bizikidetzari kalte larria eragiten diotenak (jazarpenak, isekak eta trufak, sexu gehiegikeriak, diskriminazio arrazistak, etab...) jakinarazteko eskubide eta betebeharra dugu ikasle guztiok eta, neurriak hartzeko ahalmena duen ororen betebeharra da babesa ematea, behar duenari. Geletan isiltasuna, ordena eta lan giroa mantenduko ditugu, eskola ordutan edo kanpo, hauek ez baitira patio edo jolas guneak. Era berean, gelaren kanpo aldea errespetatuko dugu, hala, ez dugu leihotik kanpora oihu egingo ezta gauzarik bota ere.

Esanak betetzea:

- *Une jakin guztietan ikasleok irakasle arduradun bat izango dugunez, berarena izango da bere ardurapean gauden ikaslearen erantzukizuna; beraz, ikasleok irakasle horren esanetara egongo gara.*
- *Irakasle ez diren ardurapean gaudenean (jangelan, autobusean,...) dagokigun arduradunaren esanetara egongo gara.*

Sortzen diren gatazkak konpontzeko metodo baketsuak erabiliko ditugu.

DBH rako zehaztapenak

Irakasle bat bertaratu ez denean, ikasleok ezin dugu gelatik irten, zaintzako irakaslearen zain geratuko gara azkeneko ordua bada ere. Gelako arduraduna joango da zaintzako irakaslearen bila.

25. artikulua.- Norberaren kontzientzia-askatasuna errespetatzeko betebeharra.

Ikasleok hezkuntza-komunitateko kide guztien kontzientzia-askatasuna, erlijioaren eta moralaren arloko sinesmenak, eta duintasuna, osotasuna eta intimitatea errespetatuko ditugu. Ikasleok ez dugu kide bakar bat ere iraindu, mehatxatu edo difamatzeko ezein adierazpenik egingo.

Ikasleok, eskola-eremuan, ezin izango dugu grabazio-baliabiderik erabili, salbu eta ikastetxeak programatutako jardueretan horrelako baliabideak erabili behar badira. Kasu horietan ere ezin izango dugu hezkuntza-komunitateko inor grabatu hark nahi ez badu.

26. artikulua.- Eskolako arauak errespetatzeko betebeharra.

Ikastetxeko antolamenduko, bizikidetzako eta diziplinako arauak ezagutu eta errespetatuko ditugu. Ikastetxearen ideiak eta izaera errespetatuko ditugu, baita horrekin ados ez gaudenean ere.

Ikastetxe eremuan ez dugu ez mugikorrik ez bestelako soinu edo irudi ekoizle edo irudi grabatzailerik erabiliko, irakasleak baimenduta ez bada.

Gailu hauek, motxilan gordeko dira isilik edo itzalita.

Eskolatik antolatutako irteera guztietan ere horrela jokatu da. DBH4ko ikasbidaia izango da salbuespen bakarra; bertan erabilera arduratsua eskatuko da. Denbora librean erabiltzen utziko da.

Eskola-jardunerako behar ez diren materialak (gailu, jolas, smartwatch...) galdu, apurtu edo lapurtuz gero; eskola ez da horren erantzule egingo.

Eskola eremua mugikorrik gabeko eremua izango da:

Hesitik barrura ezin da mugikorra erabili eskola orduetan.

Atsedenaldietan, eskola-eremutik kanpo egiten ditugun irteeretan eta hauetan erakusten dugun portaerari buruzko erabakiak ere bete beharko ditugu.

Eskola orduetan (jolastorduetan barne) ez gara ikastetxetik irtengo eta norbaitek pisuzko arrazoi bat dela medio atera behar izanez gero, zuzendaritzari, tutoreari edo atera behar duen orduan dagoen irakasleari eskatuko diogu baimena. DBHko ikasleok idatzizko justifikazioa ekarri beharko dugu.

Jolastorduetan ez gara ikastetxe-egoitzara sartuko baimenik gabe; jolastokitik sarrera duten komunak bakarrik erabiliko ditugu; euria egiten duen egunetan, ikastetxeko beste ikasleekin elkartzeko bagara, baloirik ez dugu erabiliko. Jolas eremuan jarritako arauak errespetatuko ditugu.

Eskola-eremuan ez dugu inolaz ere tabakoa, alkohola edo bestelako drogarik edukiko, ez kontsumituko.

Ikastordu aldaketetan:

- Klasetik klaserako tarteetan, ez da izango atsedenaldirik; beraz, klase bat bukatu ondoren, ikasleak, gela barruan egongo gara, kanpora irten gabe.

- Arloak horrela eskatzen duenean bakarrik aterako gara.
- Klase orduetan ez gara komunera irtengo, salbuespen moduan, irakaslearen baimenarekin ez bada.
- Saio tartetan, 1. zikloko ikasleak bakarrik joan ahal izango dugu komunera
- Jolastokitik gelara igotzen garenean (goizean, patio ondoren..), pasillotako komunak erabili ahal izango ditugu.

Irakaslearen laguntzarekin edota honen baimenarekin ez bada, ikasleok ezingo dugu ez liburutegia, ez informatika gela ezta teknologia gela ere erabili.

Bai liburutegian, bai informatika gelan, baita teknologia gelan ere, lan-giroa errespetatuko dugu.

27. artikulua.- Instalazioak errespetatzeko betebeharra.

Ikasleok ikastetxeko instalazioak, ekipamenduak eta material didaktikoak zaindu eta egoki erabiliko ditugu, horiek beren nolakotasunaren arabera eta beren helburuetarako erabiliz. Ez dugu inola ere ikastetxeko ekipamendua baimenik gabe erabiliko.

Ikasleok gainerako kideen gauzak errespetatuko ditugu eta ikastetxeko testuliburuak nahiz gainerako material didaktikoak baldintza egokietan mantenduko ditugu.

Gelak txukun mantenduko ditugu, lurrera ezer bota gabe, uneoro zakarrontziak erabiliz eta birziklatzeko behar diren neurriak hartuz. Mahaietan, kutxatiletan, hormetan eta gainontzeko instalazioetan ez dugu ezer idatzi, ez marraztu, ez itsatsiko.

Kontu handia izango dugu gure material guztia, uneoro, kutxatiletan gordetzeaz.

Ikasturte hasieran, gelako partaideok tutorearekin batera, gelako materialaren (mahai, aulki, horma, leiho eta abarren) egoera aztertu eta akta jasoko dugu; bukaeran berriz, ikusiko dugu materiala zein egoeratan dagoen behar diren konponketak egiteko.

Gelako mahaien kokapena eta ikasle bakoitzarena tutoreak erabakiko du eta arazorik sortuko balitz, eta hala badagokio, ikasleei arrazoiak azalduko dizkie eta taldeko irakasleei jakinaraziko die.

Testuliburuak galduz gero edo apurtuz gero irakaslearen, edo beraren guraso edo tutorearen ardura izango da beste testuliburu bat ekartzea edo ordaintzea

4. KAPITULUA: ARAU HAUSTEAK ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK

4.1 PRINTZIOPIO OROKORRAK

Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak zenbait betebeharrak ezarri dizkie ikasleei. Ikasleek betebeharrak horiek ez betetzea, gutxienez, jokabide okertzat hartuko da beti. Hutsegite hori, halaber, bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabide edo bizikidetzaren kontrako jokabide izan daiteke, baldin eta haren bidez hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak betetzea galarazten bazaie, edota hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak zuzenean urratzen badira.

Betebeharrak horiek betetzen ez direla ikusten duen irakasleak esku hartu beharko du derrigor. Horrenbestez, bizikidetzarekin bat ez datorren jokabidea zuzendu beharko du, betiere, arestian aipaturiko Dekretuan nahiz araudi honetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Ahalik eta lasterren zuzendu behar dira [201/2008 Dekretuak](#) okertzat jo dituen jokabide guztiak, baita bizikidetzaren kontrakoak edo bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkietenak ere. Neurri zuzentzaileak zuzendu beharreko jokabidearekin lotura izan behar dute.

4.2 ARAU HAUSTEAK ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK

4.2.1 Jokabide desagokiak eta neurri zuzentzaileak

JOKABIDE DESEGOKIAK (30. artikulua)	ZUZENKETAK (34. artikulua)
a. Justifikatu gabeko puntualtasun – hutsegiteak. b. Justifikatu gabeko hutsegiteak. Justifikatu gabeko 3 falta, jokabide desagoki bat da. Aste bateko epean zuritu beharko dira hutsegiteak. c. Ikastetxeko instalazioei, materialari edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei narriadurak eragitea, zabarkeriagatik gertatzen denean. d. Irakasleek edo agintari akademikoek agindutakoa ez betetzea; baita ikastetxeko gainerako langileek beren jardunean emandako aginduei jaramonik ez egitea ere.	a. Izandako jokabide desagokiari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa. b. Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean jokabidea desagokia izan dela onartzea. c. Jokabide-eredu egokiak ikasteko eta barneratzeko jarduerak egitea. d. Jokabide desagokiaren nolakotasunarekin zerikusia duen zerbait egitea. Taldeari egokitu zaion gelan erabilera desagokiaren ondorioz txikizioren bat gertatzen bada, egilea da arduraduna; baina egilea ez bada azaltzen, talde osoa da arduraduna eta guztion artean ordainduko dugu konponketa. Ahal den neurrian, arduradunek puskatutakoa konpondu

e. Hezkuntza Komunitateko kideen aurkako adeitasunik gabeko jarrera, keinu edo hitzak. f. Baimendurik ez dauden materialak, jantziak edo aparatuak ikastetxera eramatea. g. Ikastetxeko ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo zeinahi motatakoa) baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea. h. Ikastetxeko langileei gezurra esatea edo informazio faltsua ematea, beti ere horrek hezkuntza-komunitateko inori kalterik eragiten ez badio. i. Kalifikaziorako baliatuko diren azterketa, proba edo ariketetan kopiatzea edo besteei norberarena kopiatzen erraztea, edo azterketa, proba edo ariketa horietan baimenduta ez dauden material edo aparatuak erabiltzea. j. Hartarako baimenik ez dutenei ikastetxean sartzeko aukera erraztea edo haiekin sartzea, ikastetxeko Bizikidetza-arauen edo Gobernu Organoen jarraibideen aurka. k. Ikaskideen gauzak nahita erabiltzea, haien borondatearen aurka. l. Norberak bete beharrekoak ez betetzea. m. Ikastetxearen barruan mugikorrak, erloju elektronikoak (smartwatzh) edo/eta bestelako soinu edo irudi ekoizleak edo irudi grabatzaileak erabiltzea, irakasleak baimenduta ez bada.	dezakete; horretarako behar duten materiala erosiz. e. Ikasleok mugikorra, smartwatch, soinu edo irudi ekoizle edo grabatzailerik (MP3, MP4, iPhone,...) erabiltzen badugu, kendu egingo digute eta egunaren bukaeran jasoko dugu. Bigarren aldiz kentzen dugutenean, gurasoek edo tutoreek bila etorri beharko dute. f. Zuzendariaren, ikasketa buruaren edota une horretantxe ikastetxearen ardura duen zuzendaritza taldeko kideren baten aurrean agertzeko agindua emango zaigu kasu hauetan: - Ikasleek ditugun hutsegiteak justifikatu ezean. - Ikasleren baten hutsegiteak gehiegi izanik, justifikapenak duda-mudakoak badira, kontrol zehatzagoa (adb. mediku ziurtagiria) egiteko neurrien proposamena egin diezaioke ikasketa-buruak Ordezkaritza Organo Gorenari, horrek ontzat eman dezan.
---	---

- *Juan Zaragueta eskolan, arestian aipaturiko Dekretuan jaso denaren arabera, ikaslea une horretan babespean duen irakasleak zuzendu eta jasoko ditu jokabide desegokiak.*

- Zuzendaritzak eta aholkularitza-orientazio taldeak ezarriko du jarraitu beharreko prozedura. Prozedura hori indarreko arauekin bat etorriko da beti. Era berean, jokabidea zuzentzeko ahozko ohartarazpena baino zerbait gehiago aplikatu behar bada, halaxe jakinarazi beharko zaio ikaslearen gelako tutoreari.

4.2.2 Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta neurri zuzentzaileak.

(gauza materialei edota pertsonei kaltea eragiten diotenak dira)

BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK (31. artikulua)	ZUZENKETAK (35. artikulua)
a. Irakasleek eta ikastetxeko gainerako langileek emandako aginduak ez betetzea, betiere horrekin batera diziplinarik eza, irainak, mespretxuak, desafioak edo mehatxuak agertzen badira. b. Mehatxuak edo irainak egitea, betiere jokabide horiek ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide gisa sailkatuta ez badaude. c. Azterketa-ereduak lapurtzea edo erantzunak kopiaetzea, eta horiek guztiak hedatzea, saltzea edo erostea. d. Noten buletinetan edo gurasoentzako nahiz legezko ordezkarietzako beste edozein dokumentutan edo jakinarazpenetan aldaketak egitea, eta, dagokien hartzaileei ez ematea edo erantzunak aldatzea. e. Kalteak eragitea bidegabeko erabileragatik ikastetxeko lokalei, altzariei, materialari edo dokumentuei, edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei, jokabide hori ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea ez bada. f. Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak hartutako baliozko erabakiak nahita ez	a. Bizikidetzaren aurkako jokabideari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak. b. Kargu-hartze idatzia. c. Kargu-hartzea, ikasleen gurasoak edo legezko ordezkariak bertan direla. d. Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea, aldi baterako edo behin betiko. e. Lan hezigarriak edo eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea, edo hala badagokio, ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, betiere hiru hilabetez gehienez. f. Ikaslearen gurasoekin elkarriketa bat egiten den arte: eskolara joateko eskubidea, jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko eskubidea etetea. Eskubide-etendura horrek ezingo du hiru egun baino gehiago iraun. g. Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez hiruhilekoa amaitu arte; edo azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte.

betetzea. g. Besteek, ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, baimena eman gabe grabazio-baliabideak erabiliz. h. Beste edonori bere eskubidea baliatzeko aukera galaraztea, indarkeria erabili gabe, eta beste edonor bere borondatearen aurka zerbait egitera behartzea, beti ere indarkeriarik erabili gabe. i. Ordena nahasten duten portaerak autobusean edo eskolako jangelan, bai bakarka bai taldean, eta betiere bizikidetzan kalte larria eragiten ez badute. j. Hezkuntza-komunitateko edozein kiderengan lesio fisikoak eragin ditzaketen objektuak zuhurtzearik gabe erabiltzea. k. Ikastetxeko langileei gezurra esatea, informazio faltsua ematea edo norberaren nortasuna ezkutatzeta, horren ondorioz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuei kalte egiten bazaie. l. Diskriminazioa dakarren edozein ekintza edo jokabide, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial. Betiere bizikidetzan kalte larria eragiten duen jokabide hartzen ez bada. m. Aurreko artikuluan adierazitako jokabide desagoki bera hiru aldiz egitea hiruhileko akademiko berean, beti ere, aurreko biak zuzendu badira eta gurasoei edo legezko ordezkari	h. Eskolaz kanpo egin behar diren jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea etetea, zuzendutako jokabideak egin diren hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabideak hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte. Nolanahi ere, eskola-ordutegiaren barnean, ikasleari arreta eman beharko zaio ikastetxean. i. Jangela-zerbitzua edo garraio zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea, gehienez hiruhilekoa amaitu arte; edo azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte; betiere, bizikidetzaren aurkako jokabidea zerbitzu horiek erabiltzen ari zenean egin badu ikasleak. j. g, h eta i-n adierazitako neurriak martxan jartzeko; a eta f arteko gutxienez bi neurri aplikatu behar dira.
---	---

jakinarazi bazaizkie. n. Ikasleen betebeharrak ez betetzea dakarren beste edozein jokabide, beti ere bizikidetzan kalte larria eragiten duen jokabidetzat hartzen ez bada.	
---	--

- *Bizikidetzaren aurkako jokabiderik hautematen duen irakasleak, lehenik, aurkako jokabidea izan duen ikaslea ahoz ohartaraziko du. Ondoren, ikasketa buruarengana edo haren ordezkorengana joatea aginduko dio. Ikasketa buruak eta zuzendariak zehaztuko dute zer prozedura jarraituko da.*
- *Bizikidetzaren aurkako 2 jokabidek ikastetxez kanporako antolatzen diren jardueretara joateko eskubidea galtzea ekar dezake. Bizikidetzaren batzordeak aztertuko du zein beste neurri hartu.*

4.2.3 Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak eta neurri zuzentzaileak

BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEAK (32. artikulua)	ZUZENKETA (36. artikulua)
a. Eskola komunitateak jarritako neurri zuzentzaileei diziiplina eza, obediencia eza eta uko egitea eta baita adierazpen iraingarri larriak egitea edozein modutan. b. Diskriminazioa eragiten duten irainak egitea, edozein izanik ere. c. Jazarpen sexista hitzez, hitzik gabe edota fisikoki egitea (otsailaren 18ko/2005 legea aintzat hartuta) d. Edozein kideren aurkako eraso fisiko nahiz psikikoa. e. Osasunerako oso kaltegarriak diren jokaerak egitera bultzatzea: tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzera bultzatzea. f. Bizikidetzaren aurkako jokabide guztiak, taldean egiten direnean edo haien berri nahita zabaltzen denean (ahoz, idatziz, ikus-entzunezkoen bidez...)	1. Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko, aurreko artikuluan bildutako neurri bat baino gehiago aplikatuko ditu zuzendariak, eta horiez gain beste hauek ere: a. Eskola orduz kanpo, lan hezigarriak egitea: ikastetxeko material edota ekintzen hobekuntzan eta garapenean lagunduko dutenak. Sei hilabetez gehienara b. Hiru eta hogeia egunen artean, ikasgai batera edo gehiagora joateko eskubidea etetea. Ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta c. Hiru eta hogeia egunen artean ikastetxera joateko eskubidea etetea. Ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek

g. Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo jokabide horietan parte hartzea, betiere lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada. h. Nahita, kalteak eragitea ikastetxearen instalazio edo ondasunetan, ikastetxeko langileei, ikasleei edo beste pertsona batzuei, bai bakarka, bai taldean. i. Ikastetxera tresna erasokorrak ekartzea (labanak, puntzoiak, kuterrak,...) j. Autobusean edo jangelan ordena nahasten duten jokabideak, hauek arriskua sortzen badute. k. Grabazio baliabideak erabiliz, besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, aldez aurretik haiek horrelakorik nahi ez dutela esanbidez adierazi badute. l. Ikastetxeko jarduneko ekintzetan, beste edonoren izena erabilia aritzea m. Eskolako erregistro edo dokumentuak kaltetzea, aldatzea, baimenik gabe ateratzea eta ezkutatzea. n. Delitua edo zigor arloko hutsegitea den edozein ekintza, nahita egin bada. o. Ikasturte berean gehienez ere hiru aldiz egitea aurreko artikuluan adierazitako bizikidetzaren aurkako edozein jokabide (jokabide desagokien pilaketa izan ezik) betiere aurreko biak zuzendu badira eta, hala badagokio, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie.	kontrolatuta d. Eskolaz kanpoko jardueretan edo jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea etetea. Edo eskola-garraioko zerbitzua edo jangela-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea. Neurri hori ikasturtea amaitu arte aplikatu ahal izango da. 2. Artikulu honetako 1.b), 1.c) eta 1.d) idatzi-zatietan bildutako neurriak erabili ahal izango dira, baldin eta 1.a) idatzi-zatian adierazitako neurrietako baten bat aplikatuta bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzerik lortu ez bada. 3. Ikasleren bat aurretiaz zuzendua izan bada ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak izateagatik, ikastetxeko zuzendariak aukera izango du, hezkuntzako lurralde ordezkariari eskatzeko, ikasle horren matrikula beste ikastetxe batera aldatua izan dadin. (Dekretuko 37. artikulua) 4. Kalte larriak eragiten dituen jokabidearen ondorioz, berdinen arteko tratatu txarrak edo jazarpen sexistak eragin edo iraunaraziko balitu edo irakasleren bat erasotzen bada, zuzenean proposa daiteke espedientearen lekualdaketa, aintzat hartu gabe ikasle hori aurretik zuzendua izan den ala ez. 5. ESKOLA JAZARPENA ZANTZURIK IKUSTEN BADA ESKOLAK BIZIKASIK MARKATZEN DUEN PROTOKOLOA MARTXAN JARRIKO DU.(LINKA BIZIKASI)
---	--

5. KAPITULUA: NEURRI ZUZENTZAILEAK APLIKATZEKO IRIZPIDEAK

5.1 SARRERA

Bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidearen lekuko izan den irakasleak, lehenik, ahoz ohartaraziko du bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea izan duen ikaslea. Ondoren, ikasketa buruarengana edo haren ordezkorengana joatea aginduko dio.

5.2 NEURRI ZUZENTZAILEAK PROPORTZIONALTASUNEZ APLIKATZEN DIRELA BERMATZEKO IRIZPIDEAK

5.2.1 Neurri zuzentzaileak aplikatzerako orduan kontuan izan behar diren irizpideak.

- Hezkuntza komunitateko partaide direnen eskubide eta betebeharretan izaten duten eraginaren maila
- Komunitateko partaide direnek beren duintasunean edo agintean izan duten edota jasan dezaketen lesioa jokabide hori dela medio
- Ikaslearen egoera pertsonala eta soziala
- Gertakizuna emandako egoera

5.2.2 Erantzukizuna aldatzen duten irizpideak

ARINTZEN DUTENAK	LARRITZEN DUTENAK
• Espontaneoki jokabide desagokia onartzen denean • Aurretiaz neurri zuzentzailearik jaso ez izana. Lehen aldia izaten enean • Materialari kalteak eragin badizkio, prozedura erabaki baino lehen kalte hori eskola ordutik kanpo konpontzea edo konpontzeko konpromisoa izenpetzea • Jende aurrean barkamena eskatzea • Hain kalte larria eragiteko asmorik izan ez zuela erakustea • Eraso fisikoen kasuan, kalte edo lesiorik ez eragitea	• Jokabide hori adin txikiagoa, minusbaliatua, ahalmen fisiko txikiagoa, ikastetxera etorri berria den kidearen aurkakoa denean edota nagusikeriaz jokaturako beste edozein egoera • Hutsegitea nahita egina izatea • Aldez aurretik pentsatua izaten denean edota jakinaren gainean egitea • Taldean jardutera bultzatzen denean (incitación) • Eskola arloko ordezkaritza-kargua gehiegikeriaz baliatzea, jokabidea zuzentzea eragin duten ekintzak egiteko.

6. KAPITULUA: JOKABIDEAK ZUZENTZEKO BIDE ALTERNATIBOAK

6.1 SARRERA

- Neurri zuzentzaileak, behin erabakiak izan ondoren ere, baztertuak, ezabatuak izan daitezke baldintza batzuen barnean.
- Aurretik aipatutako neurri zuzentzaileak hartu aurretik ikastetxeko zuzendaritza arazoa konpontzen saiatuko da bide alternatiboak erabiliz.
- Ikasle inplikatuaren arteko kontziliazioa lortzen saiatuko gara, hau da, prozedura adostasunez etetea, baita materiala edo moralki kaltetutakoa erreparatzen ere.

6.2. NEURRI HEZITZAILEAK

- Elkarrizketa hezitzailearen bidez bideratuko da
- Jokabide bat ematean, zuzendariak, prozedura hasi aurretik, jokabide hau zuzentzen saiatuko da ikasleak boluntarioki egindakoa onartuarazten: adiskidetzeari gertatzen bada, prozedura eten egingo da (ikasleak onartzea, ikasleak barkamena eskatzea edo azalpena ematea, kaltetua izan denak barkamena onartzea, eta jarduera hezitzailearen bat egitea onartzea.)
- Kasu hauetan izan ezik:
 - Adin nagusikoak diren ikasleek egindako bizikidetzaren aurkako jokabideak
 - Kalte larriak eragiten dituen jokabidearen ondorioz, berdinen arteko tratu txarrak edo jazarpen sexistak eragin edo iraunaraziko balitu edo irakasleren bat erasotzen badu, ikaslea 2 alditan zuzendua izan denean eta lehenengo zuzenketatik 120 egun pasa direnean.
 - Modu honetan bi jokabide berdin zuzentzen saiatu denean inongo lorpenik gabe.

6.3 PROZEDURA ADOSTASUNEZ ETETEA

Irakasle batek bitartekari moduan jokatu du. Bitartekaritza honen hasiera onarpenarekin abiatuko da.

Prozedura bertan behera utziko da adostasunez etetea erabakitzen denean:

- Bere jokabideak eragindako ondorioen onarpena ematen denean
- Barkamena eskatzen denean
- Jokabide horiek biktimen edo erakunde kaltetuen onarpena dutenean
- Hezkuntza ekintza bat burutzearen onarpena

Prozedura adostasunez eteteak ez du zuzenketa prozedura baztertzen, baina neurri ez hain zorrotzak aplikatzeko aukera emango du kasu hauetan:

- Kalte larriak eragiten dituen jokabidearen ondorioz, berdinen arteko tratatu txarrak edo jazarpen sexistak eragin edo iraunaraziko balitu edo irakasleren bat erasotzen badu, ikaslea 2 alditan zuzendua izan ez denean eta lehenengo zuzenketatik 120 egun pasa ez direnean.

6.4 EGOERA KONPONDU DELAKO PROZEDURA ETETEA

- Elkarriketa hezitzailearen bidez bideratuko da
- Egindako mina konpondu denean edo konpontzeko konpromisoa onartu denean prozedura baztertuko da

Aurreko prozedura ez da etengo, baina neurri ez hain zorrotzak aplikatzeko aukera emango du kasu hauetan:

- Kalte larriak eragiten dituen jokabidearen ondorioz, berdinen arteko tratatu txarrak edo jazarpen sexistak eragin edo iraunaraziko balitu edo irakasleren bat erasotzen badu, ikaslea 2 alditan zuzendua izan ez denean eta lehenengo zuzenketatik 120 egun pasa ez direnean.

6.5 FAMILIAK HARTUTAKO NEURRIAK

- Prozedura hau baztertu egingo da, jokabidea familian modu egokian zuzendua izaten denean, beti ere zuzendariaren oniritziz.

Prozedura adostasunez eteteak ez du zuzenketa prozedura baztertzen, baina neurri ez hain zorrotzak aplikatzeko aukera emango du:

- Kalte larriak eragiten dituen jokabidearen ondorioz, berdinen arteko tratatu txarrak edo jazarpen sexistak eragin edo iraunaraziko balitu edo irakasleren bat erasotzen badu, ikaslea 2 alditan zuzendua izan ez denean eta lehenengo zuzenketatik 120 egun pasa ez direnean.

6.6 BIZIKIDETZA KONPROMEZU HEZIGARRIAK

- Norbanako kontratu baten antza du
- Kasu guztietan (nahiz eta prozedura adostasunez eteten ez denean, jasan duenak onartzen ez duelako), prozedura hau atzera bota daiteke hezkuntza konpromiso bat izenpetzen denean, edota adin nagusikoa ez denean, bere gurasoek sinatzen badute.
- Bizikidetzari buruzko prestakuntza jardun zehatzak eta data ipinita jaso behar dira, baita ere gurasoak aurrera eraman behar dituzten jokabideen prebentzio eta

moldaketak ere. Era berean, ikastetxearekin komunikatzeko mekanismoak bildu beharko dira.

Ez badira betetzen bizikidetza konpromiso hezigarriak, berehala aplikatuko dira etendako neurri zuzentzaileak

7. KAPITULUA: NEURRI HEZITZAILEAK APLIKATZEKO PROZEDURAK

7.1 OINARRI OROKORRAK

7.1.1. Organo eskumenak (50. artikulua)

Eskolako langile guztiak	Jokabide desegokia	Berehalako zuzenketa Ahozko prozedura
Eskolako langile guztiak	Bizikidetzaren aurkako jokabideak Bizikidetzari kalte larriak eragiten dioten jokabideak	Ahozko eta idatzizko ohartaraztea Zuzendaritzara bidaltzea
Zuzendaritza taldea	Bizikidetzaren aurkako jokabideak Bizikidetzari kalte larriak eragiten dioten jokabideak	Zuzenketa
Behatokia	Bizikidetzari kalte larriak eragiten dioten jokabideak	Zuzenketa
Organo Gorena	Zuzendaritzaren eta behatokiaren erabakiak birbegiratzea	

7.1.2. Epeak eta eremuak (50-56 artikulua)

Ezin dira burutu ondorengo kasuetan:

Epeak. Prozedura hasteko debekua	20 egunetan iraungiko du	Jokabide desegokiak
	60 egunetan iraungiko du	Bizikidetzaren aurkako jokabideak
	120 egunetan iraungiko du	Bizikidetzari kalte larriak eragiten dioten jokabideak

Noiz aplikatu:

Epeak. Neurri zuzentzaileen aplikazioa	Erabakiak izan direnean	Jokabide desegokiak
	Organo Gorenaren aurrean errekurtoa azaltzeko epea amaitzen denean (3 egun)	Bizikidetzaren aurkako jokabideak Bizikidetzari kalte larriak eragiten dioten jokabideak

Eremuak:

Zuzendu beharreko jokabideen eremuak	Eskolan	Ordutegia (lektiboa)
		Ekintza osagarriak edo eskolaz kanpokoak
		Garraioa
		Jangela
	Eskolatik kanpo	Eskolako bizitzan eragina dutenean
		Hezkuntza komunitateko partaideren bati eragiten dionean

8. KAPITULUA: BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDE GUZTIAK (KALTE LARRIAK BARNE) ZUZENTZEKO OHIKO ETA EZ OHIKO PROZEDURAK

8.1. OHIKO PROZEDURA

- Ageriko ekintza: jokaera eta egiletasuna
- Ofizioz hasten da
- Idatziz
- Bere barne gutxienez: 1) hasiera ekitaldia, 2) ikasleari audientzia (gurasoekin), 3) ebazpena

8.1.1. Jokabidearen ezagutza

- Zuzendariak ikaslearen ekintza edota jarreraren berri badu lekukoa izan delako edo informatu delako
- “Hasiera ekitaldiaren” edukia
 - Ekintzaren deskripzioa
 - Dekretuan agertzen den arau-haustearekiko lotura
 - Dekretuaren araberrako neurri zuzentzaileak
 - Neurriak ezarriko dituen organoa
 - Adiskidetzak/konponketa edo neurriak bertan behera uzteko balizkoak

8.1.2. Hasiera ekitaldiaren jakinarazpena eta zitazioa ikasleari eta bere guraso edo lege ordezkari

- “Hasiera ekitaldiaren” jakinarazpen idatzia
- “Audientziaren tramitearen” ordua eta eguna adierazi behar dira
- “Audientzia tramitea” jakinarazpenaren hurrengo egunean egiten da. Gurasoak deituak izan badira audientziarako gehienez ere hiru egun izango dira. ([II. Eranskina](#))

8.1.3. Behin behineko neurriak hartzea. Jakinarazpena

- Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen kasuan behin-behineko neurriak har daitezke.
- Guraso edo lege ordezkari eta ikasleari idatziz azalduko zaie.

- Eskola saioetara joateko eskubidea etetea aldi baterako edo gelaz aldatzeko aukera barne. (II. Eranskina)
- Prozeduraren bukaeraraino mantendu daitezke ala ez.
- Ezin izan daiteke neurri zuzentzailea baino astunagoak izan.
- Kontuan hartuko da neurri zuzentzailea aplikatzeko garaian.

8.1.4. Audientzi tramitea

- Beharrezkoa da edozein kasutan.
- Adinez txikiak direnean gurasoak edo lege ordezkariak lagunduak izateko eskubidea dute. Ikasleak alegazioak aurkez ditzake eta ondoren guraso edo lege ordezkariak.
- Guraso edo lege ordezkariak bertan egotea beharrezko izango da honako kasu hauetan: 1) Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen kasuan 2) ikastetxeko eskolaz kanpoko edo ekintza osagarrietan parte hartzea debekatzen denean 3) garraio edo jangela erabiltzea debekatzen denean.
- Alegazioak idatziz adierazi beharko dira. (III.eranskina)
- “Audientzia tramitea” dokumentua (III.eranskina) zuzendariak, ikasleak eta guraso edo lege ordezkariak sinatuko dute.
- Guraso edo lege ordezkariak sinatzeari uko egingo baliote, zuzendaritza taldeko kide bati edo irakasle bati deituko zaio irakurri ondoren dokumentuan agertzen diren alegazioak balioetsi ditzan.

8.1.5. Neurri zuzentzailea ezartzeko zuzendaritzaren erabakia. Jakinarazpena

- Zuzendariak kasuaren inguru-nabarrak kontuan hartuko ditu baita erantzukizunaren inguru-nabar aldagarriak ere.
- Eranskinaren bidez zuzendariak ikasleari bere erabakia adieraziko dio “audientzi tramitearen” aurreko eguneko eskola saioak amaitu aurretik, modu honetara guraso edo lege ordezkariak idatzia jaso dutela ziurtatuko da.
- Idatziak gutxienez jaso behar dituenak honako hauek dira:
 - Jakinarazpenaren modua
 - Probatuta dauden ekintzan deskripzioa
 - Alegazioak
 - Aringarriak edo astungarriak
 - Jarriko den neurri zuzentzailea
 - Neurri zuzentzailea noiztik aplikatuko den (beti ere OOGren aurrean erreklamazioa jartzeko epea pasa ondoren).

8.1.6. OOG-ari eta klaustroari berri ematea

- Zuzendariak OOGri eta klaustroari erabakiaren berri ematen dio.
- Baita Hezkuntza Ordezkaritari eta Gizarte zerbitzuei ere (familiak hauen laguntza jasotzen duen kasuan) honako kasu hauetan:
 - Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen kasuan
 - Ikastetxera epe jakin batean bertaratzeko eskubidea eteten bazaio
 - Garraioa edo jangela erabiltzeko eskubidea epe batetarako eteten bazaio.

8.1.7. OOG-an erreklamazioa

Ikasleak edo bere guraso edota lege ordezkariak OOGnari berrikustea eska dakieke. Epea: zuzendariaren ebazpena jaso denetik gehienez ere 3 egunera.

8.1.8. Zuzendaritzak OOG-ari erabakia igortzea

Zuzendariak espediente guztia OOGri igortzen dio.

8.1.9. OOG-ren erabakia (neurri zuzentzailearen aldaketa edo berrespena). jakinarazpena

- OOG-k ikaslearen erreklamazioa eta zuzendariak igorritako espedientea analizatzen ditu.
- OOG-k, idatzi arrazoituan, zigorraren aldaketa edo berrespena proposa dezake.
- Erabakia erreklamazioa jarri duenari adieraziko zaio gehienez ere 3 eguneko epean. Bertan Lurralde Ordezkaritari erreklamazioa egiteko dagoen epea kontuan hartu behar da. (3 egun)
- Lurralde Ordezkaritza jakinaren gainean jarri behar da honako kasuetan ere:
 - Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen kasuan
 - Aldi baterako ikastetxera joateko eskubidea eteten denean.
 - Aldi baterako garraioa edo jangela erabiltzeko eskubidea eteten denean.

8.1.10. Lurralde ordezkariari erreklamazioa.

8.2. OHIZ KANPOKO PROZEDURA

- Ustezko gertakarien berri salaketa bidez jasotzen denean, kalte-dunak edo hirugarren pertsonak egina.
- Ekintzak/gertakariak agerikoak edo nabarmenak ez direnean.

- Zuzendariaren aburuz prozedurarik egokiena denean.
- Neurri zuzentzailea ikastetxez aldatzea izan daitekeenean.

8.2.1. Jokabidearen ezagutza eta hasiera ekitaldia

- Prozedura idatziz hasten da, gertaerak ezagutzen direnetik 3 eguneko epean.
- Hasiera ekitaldiaren edukia:
 - Jokabide gaitzesgarriaren deskripzioa
 - Dekretuari edo AIAri dagokion jokabidea izatea
 - Dekretuan aipatutako neurri zuzentzaileak
 - Instrukturearen izendapena (II: eranskina)
 - Balizko adiskidetasunagatik edo erreparazioagatik etenaldia

8.2.2. Hasiera ekitaldiaren berri ematea eta behin behineko neurriak hartu ahal izatea

- Hasiera ekitaldiaren idatzizko jakinarazpena
- Behin-behineko neurriak hartu ahal izatea
 - Ikasleari edota gurasoei idatzizko jakinarazpena: entzunaldirako eguna eta ordua ezarriko dira.
 - Eskola guztietara edo haietako batera joateko eskubidea aldi batez etetea edo, taldea behin behinekoz aldatzea.
 - Neurri hauek prozeduraren amaieraraino manten daitezke.
 - Proposatuko beharreko neurri zuzentzaileak baino astunagoak izan gabe.
 - Osorik kontuan hartuko dira neurri zuzentzailearen betetze-ondorioetarako.

8.2.3. Instrukturearen abstentzioa eta ezezpena

- Instruktureak abstenitu egin beharko du, ez badu inpartzialtasuna bermatzen. Idatziz adierazi beharko du lehenengo egunean.
- Ikasleak edo bere lege ordezkariak instruktorea ezetsi ahal izango dute.
- Instruktureak ezezpena onartzen ez badu, zuzendariak auzia hiru eguneko epean ebatsiko du.
- Instruktureak ezezpena onartzen badu, zuzendariak beste bat izendatuko du.
- Ebazpena guraso edo lege ordezkariari jakinaraziko zaie.

8.2.4. Prozedura etetea adiskidetze edo konponketagatik

Ikastetxe aldaketaren kasuan salbu adiskidetzea gertatzen bada, edo konpontzeko konpromisoa, instruktoreak eten egingo du.

8.2.5. Espedientea fiskaltzari jakinaraztea legez kontrako ekintzaren zantzuak izateagatik.

Instruktorea sinetsita badago gertatutakoak Zigor Kodearen arabera delitu edo falta zigorgarria direla zuzendariari jakinaraziko dio zuzendariak Adin-txikikoen Fiskaltzara jo dezan.

8.2.6. Ikasleari edota lege ordezkariari zitazioa egitea.

- Instruktoreak hasierako informazioa jaso ondoren idatziz deituko die guraso edo lege ordezkariari.
- Gurasoen bertaratzea derrigorrezkoa izango da honako kasu hauetan: 1)jokabideak larriki kaltegarriak direnean. 2)Eskolaz kanpoko edo ekintza osagarrietan parte hartzeko eskubidea aldi batez galtzen duenean. 3) Garraioak edo jangela eskubidea aldi batez galtzen duenean.
- Zitazioan honako hauek jasoko dira: (II. Eranskina)
 - Jokabidearen deskripzioa
 - Dekretuak dionaren araberrako jokabidea izatea
 - Dekretua kontuan hartuta aplikatu daitezkeen neurriak
 - Neurria erabakiko duen organoa
 - Kontrako froga-bideak proposatzeko aukera

8.2.7. Entzunaldia

- Frogak agerian jarri, ikaslearen adierazpenak entzun, eta legezko ordezkariarenak ere.
- Instruktoreak entzun eta haiek aurkeztutako alegazioak aztertu, baita frogak eta lekukoen adierazpenak ere.
- Instruktoreak edozein unetan egoki deritzaizkion jarduerak egin ahal izango ditu.

8.2.8. Ebazpen proposamena egitea eta ikasleari, legezko ordezkariari eta zuzendariari jakinaraztea

- Instruktoreak ebazpen proposamen arrazoitua idatziko du,(IV. eranskina) eta elementu hauek izango ditu:
 - Egozten diren gertaerak.

- Proposatutako neurri zuzentzaileak hartzeko oinarria.
- Erantzukizuna aldatzen duten ingurunabarrak eta neurrien edukia
- Neurri zuzentzaileak
- Ikasleari egun bateko epean jakinaraziko zaio, eta legezko ordezkariari 3 eguneko epean.
- Proposamen alegazio berriak jasoko dira, erantsita eta zuzendaritzari igorriko zaio.

8.2.9. Espedientearen ebaztea eta ikasleari eta legezko ordezkariari jakinaraztea

- Espedientearen hasiera egunetik hasita gehienez ere 15 eguneko epea dago. Kasua konplexua den neurrian zuzendariak beste 10 egun luza dezake.
- Luzapena ebazpenik gabe amaitzen bada kasuak iraungitzen du.
- Zuzendariak ebazpen arrazoitua idatziko du, (IV. eranskina) eta elementu hauek izango ditu.
 - Frogatutako gertaerak.
 - Neurri zuzentzailea ezartzeko oinarriak.
 - Ingurunabar astungarriak eta aringarriak.
 - Aplikatu daitezkeen neurri zuzentzailea.
 - Noiz hasi behar den aplikatzen
 - Erreklamazio epeak eta zer organori igorri behar zaion
 - Erreklamazioa ebazpena jaso ondoren hiru eskola-egunen barruan egingo da.
- Zuzendariak ebazpena ikasleari, legezko ordezkariari, klaustroari eta OOGri jakinaraziko dio.
- Baita ikuskaritzari eta hala egokituz gero gizarte zerbitzuei ere ebazpena honakoa bada: Ikastetxera joateko edo garraio eta jangela zerbitzuak erabiltzeko eskubidea aldi batez eteten bada.

8.2.10. OOG-ari erreklamazioa

OOGk erreklamazioa eta zuzendariak igorritako espedientearen aztertuko ditu.

8.2.11. OOG-ren erabakia (neurri zuzentzailearen aldatzea edo berrestea)

- OOGk kasua berrikustea erabakitzen badu, aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, arrazoitutako idazki batean neurri zuzentzailearen aldatzea edo berrestea adieraziko du.

- Erabakia erreklamazioa jarri duenari gehienez ere hiru eguneko epean adieraziko dio, eta jakinarazpenean Hezkuntzako Lurralde Ordezkarari erreklamazioa jartzeko epea jasoko da, beste hiru egun balioko duena.

8.2.12. Lurralde ordezkarari erreklamazioa

Lurralde Ordezkariek erreklamazioa aintzat hartu ezean, gorako errekurtoa jarri ahal izango dio Hezkuntza Sailburuordeari, hilabeteko epean.

8.2.13. Prozedura

- Ikasle baten jokabide desegokiak ikastetxeko elkarbizitzan eragiten du.
- Edozein irakaslek 3 aukera ditu:
 - **Ahozko ohartarazpena/** ahozko ohartarazpena egiten zaie gurasoei. Nahi izanez gero idatziz ere bidaliko zaie eta sinatuta bueltatu behar dute errepikapen kasuetan kontutan izateko.
 - **Idatzizko ohartarazpena:** 1 Anexoaren bidez burutzen da. Bi kopia egiten dira, bata tutorearentzat eta bestea ikasketaburuarentzat. Originala ikasleari ematen zaio bere gurasoek sinatu dezaten.
 - **Zuzendaritzara joateko agindua ematea** (irakasleak ikaslea zuzendaritzara joan dela bermatu behar du): **zuzendaritzaren berehalako ohartarazpena** jaso behar du.

8.3 OHIKO ETA EZ OHIKO PROZEDURAK: LABURPENAK

OHIKO PROZEDURA	EZ OHIKO PROZEDURA
• Jokabidearen ezagutza. Prozedurarean hasiera • Hasiera ekitaldiaren jakinarazpena eta zitazioa ikasleari eta behar den kasuan bere guraso edo lege ordezkari • Behin behineko neurriak hartu eta jakinarazpena • Audientzi tramitea • Neurri zuzentzailea ezartzeko zuzendaritzaren erabakia. Jakinarazpena	• Jokabidearen ezagutza eta hasiera ekitaldia • Hasiera ekitaldearen berri ematea eta behin behineko neurriak hartu ahal izatea • Instrukturearen abstentzioa eta ezezpena • Prozedura etetea adiskidetze edo konponketagatik • Espedientea fiskaltzari jakin araztea. Legez kontrako ekintzaren zentzua izateagatik • Ikasleari edota lege ordezkari

• OOGari eta klaustroari berri ematea • OOGean erreklamazioa • Zuzendaritzak OOGori erabakia igortzea • OOGren erabakia (neurri zuzentzailearen aldaketa edo berrespena). Jakinarazpena • Lurralde ordezkariari erreklamazioa	zitazioa egitea • Entzunaldia • Ebazpen proposamena egitea eta ikasleari, legezko ordezkariari eta zuzendariari jakinaraztea • Espedientea ebaztea eta ikasleari eta legezko ordezkariari jakin araztea • OOGori erreklamazioa • OOGren erabakia (neurri zuzentzailearen aldaketa edo berrestea) • Lurralde ordezkariari erreklamazioa
---	--

ERRENDIMENDU AKADEMIKOAREN EBALUAZIO OBJETIBOA

3. ATALA

1. PRINTZIPIO OROKORRAK

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 16. artikuluan ezarritakoa betetze aldera, eta ikasleek beren errendimendu akademikoa objektiboki ebaluatua izatera duten eskubidea bermatze aldera, titulu honetan **agertzen den** berme-sistema ezarriko da. Sistema horrek ondoko printzipio hauek ditu oinarri: **publikotasuna, informazioa eta gardentasuna**. Aipatu berri dugun sistemaren bidez, bidenabar, ikasleek azken notaren aurrean erreklamazioak egiteko aukera izango dute.

2. PUBLIKOTASUNA

Ikasketa buruak bermatu beharko du ikasleek nahiz legezko haien ordezkariak Ikastetxeko **Curriculum Proiektua** eskuratzeko duten eskubidea. Ikasleen eta beren ordezkioen eskura egongo den Proiektuan ondoko hauek ageri behar dira: **arlo edo irakasgai bakoitzaren helburuak, edukiak eta berorietan landuko diren oinarrizko gaitasunak**.

Ikasketa buruak, halaber, bermatu beharko du irakasleek publiko egiten dituztela, batetik, arloak edo irakasgaiak gaingintzeko eskatuko diren gutxieneko edukiak, bestetik, ebaluazio-prozedura nahiz -irizpide aplikagarriak eta, azkenik, berreskuratzeak egiteko nahiz laguntza eskaintzeko aurreikusi diren prozedurak.

Ikasketa buruak ziurtatuko du informazio hori guztia ikasle adingabeen gurasoei edota haien legezko ordezkariari heltzen zaiela.

3. IKASLEENTZAKO ETA GURASOENTZAKO INFORMAZIOA

Ikasketa buruak bermatu behar du irakasleen eta ikasleen gurasoen edota ikasleen legezko ordezkarien arteko komunikazioa bitarteko arin eta egonkorren bidez gauzatuko dela. Zaindu behar du, halaber, ikasleen gurasoek edota ikasleen legezko ordezkariak irakaskuntzako eta ikaskuntzako jarduerari nahiz eskola-errendimenduari buruzko informazio osoa eskuartean dutela.

Tutorearen betebeharrak bazter utzi gabe, irakasleek ezin diote uko egin ikasleei edo ikasleen legezko ordezkariari aurreko puntuan aipatutako alderdi orori buruz eskatzen duten informazio osoa emateari. Ikasketa buruak bermatu behar du irakasle guztiek egin behar hori betetzen dutela.

Ikasketa buruak ziurtatu behar du irakasle-tutoreak beren taldeko ikasleen gurasoekin guztiekin ikasturtearen hasieran bilduko dela eta gurasoekin banan-banan ikasturtean zehar, gutxienez, bi aldiz bilduko dela². Bermatu beharko du, halaber, ikasleen gurasoen heren batek baino gehiagok eskatzen dituen bilerak egiten direla. Bilera horietan, goian aipaturiko alderdiak landuko dira, baita taldeko ikasleek alderdi horiek nola betetzen dituzten esan ere.

Aurreko puntuetan aipatu diren prozeduren bitartez igor daitekeen informazioaz gain, tutoreek ikasleen gurasoei edo legezko ordezkariari aipatu bileretan hitzartutako informazioa idatziz jakinaraziko diete, IIPn ebaluazio-bilerak egiteko ezarri den gutxieneko aldizkakotasunez.

² Datu hori orientagarria da. Ardura horiek zuzendariaren, ikasketaburuaren edo tutoreen esku utz daitezke.

Gainera, hartu behar diren neurriak hartuko dira informazioa jaso behar dutenek jasotzen dutela ziurtatzeko.

Modu berean, zikloko edo ikasturteko azken ebaluazio-bileretan lantzen den informazioa igorriko du. Gutxienez, alderdi hauei buruzko informazioa emango da:

- Etapako eta arloetako helburu nagusien betetze-maila.
- Etapako edo irakasgaietako edukien barneratze-maila.
- Nota partzialak edo ikaskuntzaren balorazioak.
- Hezkuntza-neurri osagarrien aplikazioa, beharrezkoa izanez gero.

Txosten horietan, gainera, igartzeko edo geratzeko erabakia arrazoitu beharko dute. Tutoreak idatziko ditu, irakasle taldearekin eztabaidatu ondoren, eta kontuan izan beharko ditu ikasleak programatutako helburuak lortu ez dituen arlo edo gai bakoitzari dagozkion irakasleek egindako proposamenak edo txostenak. Txosten horiek, ikastetxean jasoko dira eta hurrengo zikloko edo kurtsoko irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua orientatuko dute, irakasleek ikasgelako programazioak abiapuntu horretatik egokitu beharko dituztelarik

ZER EGIN BILERETARA ETORTZEN EZ DIREN GURASOekin?

Ikuskariari kontsulta egin da eta gurasoak ez badira etortzen azken elkarrizketara, notak eman behar zaizkie ikasleei hala edo nola. Etxera eraman behar dute txostena.

Gurasoei eskatzen zaie eskolara etortzeko elkarrizketa egitera. Bi aldiz eta gero (justifikatu gabe) ez badira etortzen ez gara gehiago saiaturko.

4. ZUZENDUTAKO LANAK, PROBAK ETA ARIKETAK BERRIKUSI

Ikasleek eta, hala egokituz gero, gurasoek edota legezko ordezkariak ikasleen errendimenduaren ebaluazioan eragina izango duten lan, proba eta ariketa guztiak ikusteko aukera izango dute. Behin ariketa guztiak zuzenduta eta nota jarrita, aipatu dokumentuen kopia edukitzeko eskubidea izango dute.

Ikasketaburuak ezarriko du kopiak eskatzeko orriek bete behar duten prozedura.(LINKA) Horretarako kontuan hartuko da ahozko eskabideek ahozko erantzuna jasoko dutela eta, aitzitik, idatzizko eskabideek idatzizko erantzuna.

Zuzenketa amaitutzat jotzeko ez da nahikoa izango kalifikazio kualitatiboa edo kuantitatiboa azaltzea; horrez gain, egindako akatsak edo hutsegiteak edo kalifikazioaren azalpen arrazoitua adieraziko da.

5. KALIFIKAZIOAK JUSTIFIKATZEN DITUZTEN AGIRIAK GORDE

Ikasturteko edozein unetan probak, lanak eta ariketak aztertu ahal izateko, irakasleek ikastetxean izango dituzte agiri guztiak, eskola-garai osoan eta, gutxienez, ikasturteko azken ebaluazioa egin ondoren erreklamazioak egiteko dagoen epea amaitu eta hiru hilabete bitartean.

Epe hori amaitu ondoren, agiriak suntsituko dira edo ikasleei eman, beti ere erreklamazio baten ondoren erabakia hartzeko beharrezkoak ez badira. Erreklamazioen bat egiten

denean, ikasle erreklamatzaileraren ariketak eta lan zuzenduak eta, haien taldeko gainerako ikasleena gordeko dira.

Edonola ere, erreklamazio bati buruzko erabakia hartzeko kontuan hartu beharreko ariketak edo agiriak gorde egin beharko dira, horiei buruzko erabaki administratiborik edo akzio judizialik egin daitekeen kasuetan, irmoki ebatzi arte gordeko dira.

6. AZKEN KALIFIKAZIOEN KONTRAKO BARNE-ERREKLAMAZIOAREN PROZEDURA.

- a. Ikasleek, edo, ikasle adingabeen kasuan, gurasoek edo legezko tutoreek, arlo, ikasgai edo esparru bateko edo batzuetako azken kalifikazioaren kontrako erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute.
- b. Kalifikazioak idatziz jakinarazten direnetik bi laneguneko epea izango da erreklamazioa aurkezteko.
- c. Horretarako, idazki arrazoitua aurkeztuko diote zuzendariari.
- d. Erreklamazio-eskaeran azken kalifikazioaren aurkako alegazioak azalduko dira.
- e. Eskaera ikasketaburuaren bitartez izapidetuko(tramitatuko) da:

i. Lehen hezkuntza

- 1. Ikasketaburuak kasuan kasuko irakasleari igorriko dio erreklamazioa eta tutorea jakitun jarriko du.
- 2. Erreklamazioak eragindako irakaslea eta ikasketaburua bilduko dira, erreklamazioa aztertu eta txostena egingo dute (txostenak eduki beharrekoak bukaeran; 19. art 5.puntua).
- 3. Erreklamazio epea amaitu eta bi laneguneko epean egingo da aipatutako txostena eta zuzendariari igorriko zaio.
- 4. Barne-erreklamazioa zuzendariak ebatziko du, era arrazoituan, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean ezarritako moduan jakinaraziko zaio erreklamatzailerari.
- 5. Aipatu txostena jasotzen denetik lanegun batean egin behar da jakinarazpena.
- 6. Zuzendariak tutoreari igorriko erabakia, eta, erreklamazioa baietsiz gero, aktak aldatzeko aginduko du.
- 7. Ikastetxeko zuzendariak barne-erreklamazioari buruz emandako ebazpenari kanpo-erreklamazioa jarri ahal izango zaio Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzako titularren aurrean.

ii. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza:

- 1. Ikasketaburuak kasuan kasuko sail didaktikoari (mintegiari) igorriko dio erreklamazioa eta tutorea jakitun jarriko du.
- 2. Saileko buruak sailaren ezohiko bilera batera deituko du, eta bilera horren akta egingo da.
- 3. Bilera horretan, saileko kideek eztabaidatuko dute ebaluazioa eta kalifikazioa aurreikusitakoaren arabera egin diren eta ezarritako ebaluazio-irizpideak zuzen aplikatu diren.
- 4. Saileko buruak txosten arrazoitua eman beharko du, ebazpen-proposamen eta guzti. (txostenaren eredia atxikita; 19. art 4.puntua).
- 5. Erreklamazio epea amaitu eta bi laneguneko epean egingo da aipatutako txostena eta zuzendariari igorriko zaio.

6. Barne-erreklamazioa zuzendariak ebatziko du, era arrazoituan, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean ezarritako moduan jakinaraziko zaio erreklamatzailerari.
7. Aipatu txostena jasotzen denetik lanegun batean egin behar da jakinarazpena.
8. Zuzendariak tutoreari igorriko erabakia, eta, erreklamazioa baietsiz gero, aktak aldatzeko aginduko du.
9. Ikastetxeko zuzendariak barne-erreklamazioari buruz emandako ebazpenari kanpo-erreklamazioa jarri ahal izango zaio Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzako titularren aurrean.

7. MAILAZ IGAROTZEARI EDO TITULUA ESKURATZEARI BURUZKO ERABAKIAREN KONTRAKO BARNE-ERREKLAMAZIOAREN PROZEDURA.

- 7.3. Ikaslea mailaz ez igarotzeko edo titulurik ez lortzeko erabakia idatziz jakinarazten denetik hasita, erabaki horren aurkako erreklamazioa jarri ahal izango dute ikasleak edo, adingabeen kasuan, guraso edo legezko tutoreek, bi laneguneko epean.
- 7.4. Idazki arrazoitua aurkeztu behar diote ikastetxeko zuzendariari.
- 7.5. Zuzendariak ikaslearen talde ofizialeko tutoreari helaraziko dio, ikasketabururaren bitartez.
- 7.6. Tutoreak ezohiko bilera berezi batera deituko du irakasle taldea.
- 7.7. Ikasketaburuak ezohiko saio horretan parte hartuko du, hitzarekin, baina botorik gabe. Irakasle taldeko kide bada, halakotzat jardungo du.
- 7.8. Irakasle taldeko irakasle bakoitzak bere iritzia adieraziko du hartu beharreko erabakiari buruz, boto bat emanaz.
- 7.9. Kontuan hartuko dira ikaslearen konpetentzia-maila eta, kasua bada, irteera-profila ere.
- 7.10. Tutoreak bileraren akta egingo du.
- 7.11. Tutoreak txosten arrazoitua egingo du, ebazpen-proposamen eta guzti, eta ikastetxeko zuzendariari igorriko dio bi laneguneko epean, erreklamazioetako epea amaitzen denetik hasita. Txostenak izan behar dituen atalak bukaeran jasota daude.
- 7.12. Barne-erreklamazioa zuzendariak ebatziko du, era arrazoituan, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean ezarritako moduan jakinaraziko zaio erreklamatzailerari.
- 7.13. Jakinarazpen hori lanegun bateko epean egin beharko da, txostena jasotzen denetik hasita.
- 7.14. Erreklamazioa baietsiz gero, zuzendariak dagozkion aktak aldatzeko agindua emango du.

8. HEZKUNTZA LURRALDE-ORDEZKARIARI KANPO-ERREKLAMAZIOA AURKEZTEKO PROZEDURA

- 8.3. Barne-erreklamazioaren ebazpenarekin ados egon ezean, ikasleek edo, ikasle adingabeen kasuan, guraso edo legezko tutoreek ikastetxeko zuzendariaren ebazpenaren aurkako erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute, ebazpena jakianrazi eta bi lanegunetako epean. Horretarako, idazki arrazoitua aurkeztu beharko dute ikastetxeko zuzendaritzaren aurrean, Hezkuntza lurralde-ñordezkaritzari igortzeko.

- 8.4. Ikastetxeko zuzendariak, bi laneguneko epean, gehienez, espedientea Hezkuntza lurralde-ordezkariari igorriko dio, eta kopia bat igorriko dio Hezkuntzako ikuskaritzari.